




**Blitz**  
Eskolako  
Liburutegiko  
Bilduma  
Sorta  
horia



**Irakurtzea eta idaztea**  
**Interneten garaian**  
**Irakurketaren eta idazketaren**  
**analisi eta proposamenak**  
**Bigarren Hezkuntzan**

MIGUEL ÁNGEL GARCÍA ANDRÉS



 **Nafarroako**  
**Gobernua**



**II** **Blitz** sail horia

.....

**Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian**  
**Irakurketaren eta idazketaren analisia**  
**eta proposamenak Bigarren Hezkuntzan**

EGILEA

Miguel Ángel García Andrés

© Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentua

I. edizioa, I. inprimaketa (2008)

BILDUMAREN ZUZENDARITZA

Hezkuntza Berriztapenaren eta Curriculum Diseinuaren Atala

DISEINU GRAFIKOA

Asis Bastida

INPRIMAKETA

xxxx

**D.L.** NA - xxxx/2009

**ISBN** 978 - 84 - 235- xxxx - x

Sustatzaile eta banatzailea:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa

Navas de Tolosa, 21


31002 IRUÑA

Telefonoa: 848 427 121

Faxa: 848 427 123

fondo.publicaciones@cfnavarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones



.....

**Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian**  
**Irakurketaren eta idazketaren analisia**  
**eta proposamenak Bigarren Hezkuntzan**

.....

MIGUEL ÁNGEL GARCÍA ANDRÉS



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua




## AURKEZPENA

IKTak hedatu eta Internet berriki sortzearen ondorioz, nabarmen aldatu da informazioa eta ezagutza eskuratzeko modua gure gizartean oro har eta, bereziki, eskolan. Bide da, beraz, Europako Batasunak, komunikazio gaitasunak eskuratzeko prozesu orokorrean, helburu lehenetsizat jartzea hiritarren gaitasun digitala iristea, Nafarroan eskola curriculumean erabat sartu den helburua, berau.

Argitalpen berri hau, *Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian* deitua, ikuspuntu honen inguruan mamitu da. Oinarri harturik Bigarren Hezkuntzako ikasleen benetako irakurtze ohiturak zein diren eta haiengan IKTek zer eragina duten, aztertu egiten dira Interneteko genero diskurtsiboak komunikazioaren ikuspuntutik, irakurketak eta idazketak zer eginkizun duten euskarri analogiko eta digitaletan, eta ondorioz, hainbat jarduera proposatzen dira gelan egiteko Hizkuntza eta Literatura arloetan, baliabide birtualek ekartzen dituzten baliabideak eta generoak aprobetxatzeko moduan.

Miguel Angel García Andrésen liburu honek –Blitz sorta horiaren azken zenbakia– zabaldu egiten du berriazko materialak sortzeko asmoa eta irakasleei iradoki egiten dizkie hainbat ideia irakurriaren ulermena eta idazmena lantzeko curriculumaren arlo desberdinetan. Sinetsita gaude lortzen badugu Nafarroako eskolameek hizkuntzaren baliabideak erabil ditzaten, zuzen ez ezik gizarte testuinguru guztietan harremana ezartzeko helburuz ere, horrek berebiziko eragina izanen duela hurrengo urteetako hiritarren ongizatean. Hezkuntzaren hiru dimentsio hauek –jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea– oso lotura estua dute komunikazio gaitasunarekin eta lan honek jakinaren gainean eragingo dio. Beajondeiela esaten diet hemendik irakaskuntzako profesionaleri gure ikasleek arlo honetan izanen duten arrakastagatik.

**Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea**  
HEZKUNTZA KONTSEILARIA



## Orrialdea

3	Aurkezpena
7	Aitzinsolasa
9	<b>1.</b> IRAKURKETAREN ULERMENA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK
11	1.1 DBHko ikasleek IKTak nola erabiltzen dituzten
12	1.2 Nolakoa da ikasle prototipikoa?
13	<b>2.</b> INTERNETEKO GENERO BERRIAK
14	2.1 Posta elektronikoa. E-maila irakaskuntzan
15	2.2 Txata eta messengerra. Txat generoaren konbentzioak
16	2.3 Web orria. Web guneetako hizkuntza baliabideak. Web orriak irakaskuntzan
17	2.4 Blogak. Hezkuntza bertasio bat: edublogak
21	<b>3.</b> BETI MODU BEREAN IRAKURRI AL DUGU?
23	3.1 Ohiko irakurketa versus irakurketa hipertestuala. Liburuak eta ordenagailua, elkarren osagarri
24	3.2 Irakurtzeko gaitasun berriak. Informazioa eta ezaguera. Irakurle kritikoak prestatzea
28	<b>4.</b> IKASGELAKO PROPOSAMENAK
30	4.1 Web orriak. Trebetasun digitalak. Informazioa sarean. Adibideak
	4.2 Webquest bat eratzea. Espainola Atzerriko Hizkuntza eran irakasteko Webquest bat
31	4.3 Posta elektronikoa. Kexua edo erreklamazioa egiteko idazkia: adibideak. Salmenta iragarki bat. Adiskidetasun gutuna. Adibideak eta iruzkina
36	4.4 Komunikazioaren gune birtualak. Txataren erregistroa eta kodeak. Hizkuntza ezaugarriak. Messengerra: aprobetxamendu didaktikoa
38	4.5 Edublogak. Blogaren esperientzia pertsonala
40	4.6 Lankidetzan idaztea. Plagio bat prestatzea, adibide bat. Testu ekoizpena. Jardueraren balorazioa
45	Azken solasa
48	I. eranskina. Grafiko iruzkinduak
55	II. eranskina. Ikasleek prestatuturiko kontakizuna
56	Bibliografia iruzkindua





## AITZINSOLASA

Zein neurritan aldatu dira irakurtzeko eta idazteko ohiturak gizartean eta, batik bat, gazte eta nerabeen artean? Gaur egun ezin zaio auzi honi erabat eta behin betikoz erantzun, aldakuntza-aldi batean bete-betean baikaude eta ondorioak aieruzko eta etorkizuneko esparruan sartzen baitira, baina, bistan da, IKTak ezartzeak eta hedatzeak –eta bereziki, Interneten fenomenoak– irakurtzeko moduan aldaketa sakonak ekarri ditu. Aldaketa horiek ondorio nabariak izan beharko lituzkete irakasleen didaktikan eta, batez ere, hizkuntza arloko irakasleengan.

Lan honen helburua, lehenik eta behin, diagnostikoa egitea da Bigarren Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak zein diren eta horiengan IKTek eta Internetek egiaz zein eragin duten jakiteko. Abiapuntua landa-lana da, ohiko hedabideak zein maiztasunez erabiltzen dituzten ikertzeko, hala nola, egunkariak, aldizkariak, liburuak, irratia, telebista, eta Interneteko diskurtso-genero berriak, adibidez, web orriak, posta elektronikoa, txat eta blogak; zertarako-eta euskarri desberdin horiek erabiltzera bultzatzen dituzten arrazoiak ezagutzeko, horien abantailak eta desegokitasunak barne, eta ikasleen ahalmena eta IKTez dakitena ebaluatzeko.


Bigarren helburua Interneteko diskurtso-generoen analisia egitea eta horietan sakontzea da, hizkuntza eta komunikazioaren ikuspuntutik. Begibistakoa da literatura-genero kanoen teorizazio ugari eta aberatsak dituztela, baina arestian aipaturiko genero berrien kasuan, duela gutxiak direnez, garai honetan ari dira ikertzen, baina nolahi ere, genero horiek ikaskuntzarako eskaintzen dituzten aukerei buruzko aurreneko ondorioen zirriborroa egiten ahal da.

Hirugarren atalean irakurketaren eta idazketaren historia labur bat egiten da, alfabetoa asmatu zenetik hasita, izan diren etapak, bereziki inprentaren etorrera eta harek sorturiko iraultza, gure garai hauetara arte, zeinean lehia eta mestizajea ari baita gertatzen euskarri mota desberdinen artean, digitalen eta klasikoen, elektronikoen eta ohikoen artean.

Azkenik, argitalpen honen bukaeran, gaztelania eta literatura jarduerak proposatzen dira, Sareko genero desberdinak, web orriak, posta elektronikoa eta blogak erabiltzearekin lotuak, eta horrekin batera baita testu idazketa ere, elkarlaneko ikaskuntza gisa ulertuz. Jarduera horiek diseinu eta prestatze maila esberdinetan daude, gelan berretsi dira eta asmoa da proposamenak egitea DBHn hizkuntza eta literatura irakasteko bide berriak irekitze aldera.

.....





IRAKURKETAREN ULERMENA  
ETA IRAKURTZEKO OHITURAK



Gazteen eta nerabeen irakurtzeko ohiturez hitz egiten denean, hala hezkuntza arloko profesionalen artean, nola irakaskuntzako arazoez kezkatzen diren pertsonen artean, maiz aski entzun izan da irakurtzeko ohitura gutxi dutela, edo batere ez: “ia ez dute irakurri ere egiten”, “hainbeste kostatzen zaie irakurtzen hastea”, “irakurtzen badute ere, behartuta, eta ez gustuko dutelako”, “multimedien unibertsoan irakurketa gutxietsia dago”, horiek guztiak behin eta berriz eta gizarte-eremu guztietan entzuten diren topikoak dira eta, gainera, komunikabideek zabaldu ez ezik hanpatu ere egiten dituzte. Iritzi horiek ezkorrak eta deskalifikatzaileak diren arren, horien azpian benetako kezka bat dago, eta kezka horren gaia da eskolak (bere historia alfabetizazioarekin baitago lotua) eman ohi duen eta ematen jarraituko duen gaitasun oinarritzkoenetako bat: irakurketa.

Gure gizartean, ikus-entzunezkoen kulturak, hitzezkoak ez diren kodeak, ikonikoak, ugalduta izana eta hartu duten garrantzia informazio eta ezagueraren gizarte honen ezaugarrietako bat da. Zentzu horretan, eskolak ere aspaldidanik bere egin du “irudiak irakurtzen” ikasleei irakatsi beharra, baina ez dago inongo zalantzarik irakurtzen eta idazten jakitea funtsezko eta azpimarratzeko bidea dela jakintzaren transmisiorako, izan ere curriculum arloek euren edukiak, batik bat hizkuntzaren eta sinboloen bidez egituratzen dituzte. Ez da harrizkoa, beraz, Europar Batasunerako ikasleen erronka eta adierazle nagusienetako bat irakurketaren ulermena izatea Europako hiritarrentzako hezkuntza politikarako programan. Horren kariaz, arlo guztietan eta, batik bat, hizkuntza arloetan, ikaskuntzako tresna funtsezkoa eta ezinbestekoa da testu ahozkoak eta idatzizkoak, euren tipologia aberatsean, ulertzea eta horien kritika egitea.

Irakurketa ohitura eta usadioetara hurbiltzeko, munduan zehar aldi-aldi egiten diren irakurketaren ulermenaren gaineko proba objektiboek ematen dizkiguten datuak hartzen dira abiapuntu, adibidez PISA proiektua, Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundeak sustatua, edo gertuagoan, autonomia-administrazioen hezkuntza departamentuek sustaturiko ebaluazioak. Gertakari honek badu bere logika, izan ere era horretako probek aski ongi neurtzen dute ikasle multzo handi baten ulermena eta bide ematen dute emaitzak urrungo eta mota desberdineko beste herrialde, eskualde, hezkuntza eredu eta ohiturekin alderatzeko.

Hala eta guztiz ere, gazteek eta nerabeek mota askotakoak eta, gehienez formalak diren testu egituratuak irakurtzeko dituzten zailtasunak zein diren azaltzen badigute ere, egiaz zer irakurtzen duten ez digute esaten, eskolan eta eguneroko bizitzan, behar turik nahiz euren borondatez, zein euskarri dituzten gustukoak, zein generotara jotzen duten maizago, kanal hobetsienak, komunikabide bakoitzean egunez egun ematen duten denbora edo mutilen nahiz nesken hobespenak.

Irakurtzeko ohiturei dagokienez, egin ohi diren ikerketak liburuaren irakurketara mugatzen dira, euskarri nagusi eta bakartzat joz, hots, liburu edo eskuliburu akademikoak, fikziozkoak, saiakera liburuak, batzuetan komikiak ere bai, egunkariak eta aldizkariak, baina ez da aipatu ere egiten bestelako euskarri eta kanalik. Horrela, ikusi dugu beharrezkoa dela era

.....

askotako komunikabideak erabiltzeko orduan gure gazteek eta nerabeek dituzten ohiturak zein diren jakitea, hasi ohikoenetatik eta Interneteraino eta horrek irakaskuntzarako zer garrantzia eta ondorioak izan ditzakeen.

## 1.1 DBHko ikasleek IKTak nola erabiltzen dituzten

.....

Ikertu beharreko gaia da zein diren Bigarren Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak eta ohitura horietan zein eragina duten eta zenbateraino sartu diren IKTak eta Internet. Azterlan horretarako idatzizko inkesta bat prestatu genuen eta bertan galdetzen zen ohiko hedabideak zein maiztasunez erabiltzen ziren, esate baterako egunkaria, aldizkariak, liburuak, irratia eta telebista, bai eta Internet eta horren diskurtso-genero hedatuena ere: web orria, txata eta messengerra, posta elektronikoa eta weblogak. Galde-sortan, gainera, egunkarien eta aldizkarien izenez galdetzen zen, gehien irakurtzen diren sailak zein diren, gehien bisitatzen diren helbide elektronikoak, hedabide eta euskarri batzuk erabiltzeko arrazoiak, horien abantailak eta desagokitasunak, eta ikasleek IKTez duten ahalmenez eta ezagueraz autoebaluazioa egin zezatela proposatzen zen.

Azterlan honen abiapuntu den hipotesiaren arabera, ez da egia lehen baino gutxiago irakurtzen dela. Argi eta garbi esanda: eskola-eremuan, bederen, irakurle mota berri bat dakusagu, euskarri desberdinak hein bateko trebetasunez konbinatzeko gai dena, zapping-irakurlea, alegia; liburua beste euskarri bat da, beste batzuekin lehiatzen; Internetek eragina du ohiko mass-medietan, nahiz oraindik ere erabat neurtu eta ebaluatu ez den, eta bi komunikabideen edo teknologien arteko “gatatzak”, analogikoen eta birtualen artekoak, ez duela zertan negatiboa edo motelgarria izan behar.

Ikasleen populazioari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak hartzen ziren kontuan. Bigarren Hezkuntzako Institutuak aukeratzeko garaian, kontuan hartu ziren izan zitezkeen kolaborazioak, irakasle interesdunak eta laginketa adierazgarri baten bitartez Nafarroan zeuden hezkuntza ereduak biltzeko premia. Inkestak ikastetxe hauetako DBHko bigarren zikloetan egin ziren: Iturrama BHIko D ereduan, Altsasuko San Miguel de Aralar BHIko A eta D ereduetan, eta Zizur Nagusiko BHIko A, D eta G ereduetan. Guztira 228 inkesta egin ziren eta tauletara pasatu ondoren Komunikabideak Ikertzeko Elkartek mass-medien adin guztietako erabiltzaileen artean burututako inkesta orokorrekin konparatu dituzte eta, orobat, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazio Zentroak, bereziki Espainiako nerabeen irakurketa ohiturei buruz eginiko azterlanarekin, bai eta zenbait ikastetxetako irakasleen irudipen eta iritziekin<sup>1</sup> ere. Inkestei erantzun, materiala prozesatu eta baloratu ondoren, institutueta itzuli zen ikasleek iruzkinak egin zituzten. Ondoren, bildutako datuen analisi orokorra egin da. Laginaren berezitasuna da hiru ikastetxe desberdinetako maila osoak biltzen dituela, ikastetxeetan laginketa zabalago bat egin ordez, aleatorioa, konbentzionala, baina exekuzioa kontrolatzeko zailagoa. (1. eranskina).

<sup>1</sup> <http://www.mec.es/cide/espanol/publicaciones/boletin/files/Bol010jun02.pdf>

## 1.2 Nolakoa da ikasle prototipikoa?

Azterlanean azaltzen zen hipotesira itzuliz, esan dezakegu XXI. mendeko ikasle gehienak euskarri arrunt diferenteetan mugitzeaz gainera, horietan lan egiten, informatzen, jostatzen direla. Liburua euskarri bat da beste batzuen artean, eta eremu batzuetan duen nagusitasuna nabaria den arren –literaturan, fikziozko liburua; eremu akademikoan, irakasgaiaren eskuliburua–, nagusitasun hori ezbaian dago beste eremu batzuetan, hala nola komunikabideetan, eremu zientifikoan, humanistikoan, teknologikoan eta, noski, kulturean eta aisialdian, horietan euskarri digitalaren nagusitasuna agerian baitago<sup>2</sup>.

Likasle prototipiko hori gai da era guztietako euskarrietan trebeki moldatzeko. Trebetasun edo gaitasun digital hori praktikatu, besterik gabe eta intuizioz eskuraturiko zerbait baldin bada ere, duen meritua aitortu behar zaio, era didaktikoan aprobetxa daitezkeen trebetasunak direlako, nahiz eta, hainbat kasutan gutxiagotasuneko mailan jartzen gaituztenez, irakasle eta helduengan mesfidantza eta beldurra sortarazten dizkiguten. Horrela, makinetan aritzeko, horien arauak, protokoloak, genero berriak, erregistroak eta diskurtso-egiturak barneratzeko ikasleak duen gaitasuna azpimarratuko dugu. Eta, orobat, ikaslearen gaitasuna irakurketa eta idazketa hipertestu batetik abiatuta eratzeko, zeinek sekuentziazioa eta prosa lineala ordeztzen baititu. Azkenik, aipatu diren gaitasun digital horiek nahitaezko trebetasunak dira Interneten nabigatzeko, guneak bilatzeko, horren egitura konplexuan barrena ibiltzeko, eta aurkitutako datuak balioa ote duten eta fidagarriak ote diren jakin eta ebaluatzeko, nahiz eta beti zuzen ez asmatu<sup>3</sup>.

Bigarren Hezkuntzako mutilak eta neskek gai dira abenturako nobela bat irakurri eta aldi beretsuan entziklopedia birtual batean panda hartzen gaineko erreportaje baterako informazioa bilatu, edo hip hop musikaren deskarga egin eta bidenabar foro baten parte hartuta euren aktore gogokoena difamazio batengatik defenditu, hizkuntza bateko ariketa-koaderno bat estudiatu eta aldi beretsuan e-mail bat Californian duen lagun bati bidali, arratsaldean ligako jarraitzaileekin txateatu eta motozirkulismoko aldizkari bat edo kioskoan erositako gazte magazin bat irakurtzeko. Bitxi samarra dirudien arren, gaur egun ikasle batek bere institutuan ia dena paper inprimatuan edo ohiko euskarrietan dauka, irakasgaien liburuak, entziklopediak, apunteak, iragarki-oholak, oharrak, liburutegia, arbela... guztiak, oraindik orain, askoz ere gehiago dira material digitalak baino.

<sup>2</sup> 2006. urtean informazioa digitala liburuena baino hiru miloi aldiz handiagoa zen. (EL PAÍS, 2007-III-7)

<sup>3</sup> CASSANY, Daniel. (2006). *Tras las líneas (Sobre la lectura contemporánea)*. Anagrama. Barcelona



## INTERNETEKO GENERO BERRIAK



Egile batzuk (Yus<sup>4</sup>, Cassany) ahalegindu dira Interneteko diskurtso-generoetan eta horien karaktereetan sakontzen, eta hasiera batean bi motatako komunitate birtualak bereizten dituzte, alde batetik sinkronikoak, komunikazioa denbora errealean gauzatzen dituzten generoak biltzen dituenak –adibidez txatak, rol jokoak, bideokonferentzia– eta bestetik asinkronikoak –debate-foroak, newsgroupak, e-maila–, komunikazioa geroratua dutenak, horrek esan nahi du mezua jasotzen denetik erantzuna egiten denera arte denbora tarte bat dagoela.

Komunitate birtualak hitzezko komunitateak edo errealak ordeztzen ari dira, hainbestearino non mendebaldeko gizarte hagitik teknifikatueta nagusitzen ari baitira. Egitate honen arrazoietakoa bat da gizabanakoek euren komunitate naturaletan geroz eta gehiago somatzen dutela segurtasunik eza eta isolamendua. Ikasleek ere beharrezkotzat jotzen dute ideia edo gustu beretsukoekin komunikatzea, hurbilekoekin, adiskideekin eta adin berekoekin, harremanak etenik gabe izateko, horretarako elkarren arteko urruntasuna gaindituz. Gure ikasleak hainbat komunitatetan daude, egunerokoetan, elkarrekin, kirol taldeetan, lagun taldean, ikasgelako taldean, bai eta komunitate birtualetan ere, batzuetan gainjartzen direnak, esate baterako txatak eta messengerra, ikaskideekin, adiskideekin eta ezezagunekin.

Irakurtzeko eta idazteko ohituren galera gero eta handiagoaren erruduna Internet dela esaten dutenei erantzun behar zaie esanez ezen, era horretako generoetan, bitxia badi-rudi ere, hizkuntza, besteen aurrean aurkezteko norberak idazten duen testua, alegia, faktore erabakigarria eta hainbat kasutan bakarra dela beste erabiltzaileen aurrean identifikatzeko eta azaltzeko, testu horiek benetan eredugarriak ez badira ere. Testu horiek idatzizkoak izan arren, ahozko hizkeraren eragin nabarmena dute eta eremu horretan indarrez sartu da hizkera ikonikoa, emotikonak –gogo-aldarteen sinbolo diren ikonoak–, tipografien jokoak, letra larriak, grafien aldaketak, akronimoak. Ikusiko dugunez testu idatzi horiek, maiz aski, ahozkoaren eite nabaria dute.

## 2.1 Posta elektronikoa

E-maila etengabe ugalduz joan da beste genero batzuen kaltetan, demagun telegrama edo posta zerbitzuaren, bai eta berriagoen kaltetan ere, faxa adibidez. E-maila garrantzi handikoa da, duen baliagarritasunagatik, profesional batzuentzat eta, oro har, pertsona helduentzat. Komunikabideak Ikertzeko Elkartek berriki egindako inkesta batean (2007ko otsaila) agerienez, posta elektronikoa web orria baino gehiago erabiltzen da. Yusek aldaera batzuk bereizten ditu, hala nola posta pertsonala, debaterako foroak eta banaketa zerrendak. Programa batetik bestera aldeak dauden arren, posta pertsonalak osagarri finko batzuk ditu, adibidez igorlea, itxaropenen modifikatzaile gisa ari dena, eta hartzailea. Biek dute helbide elektronikoa bana, zeinean a bilduak nortasun indibiduala eta talde edo kolektiboarena bereizten baititu; gaia, mintzagaia dei genezakeena; mezua- ren atal nagusia eta sinadura digitala, horrelakorik baldin bada. Egungo joera da hizkera

<sup>4</sup> YUS, Francisco. (2001). *Ciberpragmática (El uso del lenguaje en Internet)*. Ariel.artzelona



ez-formala izatea eta nolabaiteko ekonomia hitz egiteko eran, agurtzeko hitzak urri, azken agurra, eta mintzamolde sintetikoa eta neurtua eta ez administrazioan edo merkataritzan nagusi izan den hizkera erretoriko eta zaharkitua.

### 2.1.1 ■ E-MAILA IRAKASKUNTZAN

Bigarren hizkuntza irakasteko posta elektronikoak ematen dituen aukerak egile askok goraipatu dituzte (Cruz Piñol)<sup>5</sup>. Hain zuzen ere, azpimarratzen da e-mailak ahozko hizkeraren berezkotasuna eta bizitasuna dituela, irekitasun handiagoa ahalbidetzen duela eta hizkuntza berriaren ikasleari hizkuntza idatzia menderatzen laguntzeko eta gidatzeko tresnarik egokienetako bat dela. Aurreko azterlanean egiaztatuenez, e-maila ez da sobera erabiltzen irakaskuntza arautuan eta horren ahalbideak ustiari gabe daude oraindik. Ikasleek egiten dituzten idazlan gehienak posta elektronikoz igor daitezke, horien zuzenketa eta ebaluazioa egiteko eta baliabide garrantzitsu bilaka daiteke dibertsitatearen tratamendua errazteko.

## 2.2 Txata eta messengerra

Txata, toki fisikoa goiti-beheiti, erabiltzaileen arteko elkarrizketazko interakzio gisa definitzen da eta ezaugarri hauek ditu: ezizenak erabiltzea –izengoitiak edo nicknameak– testu eskusibotasuna, izengabetasuna, solasteko denbora nahitaez mugatua izatea, gehienez ere lerro batekoa, denbora errealeko sinkronia, mezu guztietarako sarbidea, solaskideen aldaketa etengabea, parte hartzaileak sartzen eta ateratzen ari direlako. Dirudienez genero hau ez da egokiena bigarren hizkuntza ikasteko, komunikazioa hain lasterra baita ezen hizkuntza ongi eta segurtasun osoz menderatzea eskatzen baitu, eta horretara ez da iristen atzerriko hizkuntza baten ikaslea, eta mezuak nekez ulertzen dituzte hasiberriek. Alabaina, ama-hizkuntzan genero honek, messengerreko aldaerak barne direla, itzal handia du mundu osoko ikasle eta nerabeen artean, aurrerago ikusiko den bezala.

### 2.2.1 ■ TXAT GENEROAREN KONBENTZIOAK

Txat generoak hizkuntza konbentzio multzo bat dauka bere baitan, posta elektronikoak dituenak baino nabariagoak, ahozko hizkeratik hurbil, adibidez emotikonak –“emozio” eta “ikono” hitzez eraturak akronimoa–, keinu-mintzairaren baliokideak eta sentimendu sorta zabala grafikoki irudikatzeko balio dutenak. Txatak ahozkoaren eraginpeko testu baten antza du, interakzio anitza solasaldiak gainjartzen dituena, elkarrizketak hagitik laburrak, testua abiadura handikoa delako eta erraz galtzen dena, solasaldi txandak azkarrak eta kaotikoak, eta izangabetasunaren atsegina eta inpunitatea, are eta, gehienezake, arau idatzia haustearen gozamina. Hasiberriei lehenbizikoan oihana irudituko zaie, bidaiari bat hiri ezezagun batean kokatuko balute eta han hiriko seinaleak eta sinboloak begien aurretik horren azkar pasatzen direlarik ulertu eta erreakzionatu ezinik geldituko balitz bezala.

<sup>5</sup> Mar Cruz Piñol. (2006). “La Internet y la enseñanza del español como lengua extranjera”. Revista *Espéculo*. Argitalpen elektronikoa honetan egileak Internetek Espainola Atzerriko Hizkuntza eran irakasteko dituen ahalbideak azaltzen ditu

Hala ere, genero oso estimatua da ahozko elkarrizketa berezko eta adiskidetsuaren pareko delako. Alde horretatik, ez da harrizkoa nerabeentzat horren atsegina izatea eta hortan aritzearren halako aitzakiak jartzea, esate baterako lagunekin etenik gabeko harremanetan aritu beharra, adiskide berriak egiteko aukera, hezur-haragizko solaskideekiko elkarrizketa arautzen duten konbentzio sozialen gainetik lotsagabe eta probokatzaileragertu ahal izatea, eta arauak, ortografiaren aldetik eta baita edukien lotsagabekeriarengatik ere, haustearen gozamina.

## 2.3 Web orria

Web orria azpimultzotzat jotzen da weben barrenean. Badira aldaera sailkatuak, adibidez gizabanakoa soilik aurkezten duena, erakunde bateko –adibidez Unibertsitate bateko– kide bezala aurkezten duena, eta gu-tasunari dedikatua, taldetzat hartzen gaituena, demagun fans talde bat bezala. Web horiek elementu komunak dituzte, esate baterako testua, markatzen eta kopiatzen ahal dena, ondoren erabiltzeko, erabiltzaileak instalatuak dituen iturrien bidez pantailara daitekeena, esate baterako fitxategi formatuko irudiak, flash edo animazioak, audioak, hiperloturak...

### 2.3.1 ■ WEB GUNEEN HIZKUNTZA BALIABIDEAK

Hizkuntza baliabideei dagokienez, Interneteko beste genero batzuetan bezala, genero honen hedapenak neologismoz jositako lexiko bat sortarazi du: *direktorio komuna edo web site, indize-orriak edo indexak, markoak edo frameak, korritze-barrak, menua, esteka, azaleko orria...* Horietako batzuk, ezinbestean eta, maiz, besterik ezean, ingleseko izena izan ohi dute. Mundu horretan sartzen garen heinean mintzaira berriak geureganatzen hasten gara, jerga edo argot modukoak, eta horiek ikasi egin behar dituzte erabiltzaileek. Adibide gisara weblogen azpigereroa, web pertsonalen oso antzekoak. *Blogerra, blogetzea, blogosfera, permalink, fotolog...* Txunditzeko moduan hazten ari den hiztegia, unibertso hori etenik gabe handitzen eta adarkatzen den neurrian.

Gramatikaren eta sintaxiaren esparruan webek, aldaera franko izaki guztia orokortzea zaila bada ere, nominaliziorako joera erakusten dute, tituluak eta azpigituluak ugari direlako, eta orobat, esaldi laburrak, ondoz ondo jarriak edo koordinatuak, lerroalde motzak, baina menpeko perpausak eta esaldi luzeak urri. Prosa neutroa izan ohi da eta modalizazio nabarmenik gabea, inpersonaltasuna azpimarratzeko prozedurekin. Hori guztia diskurtsu lau eta laburraren mesedetan, irakurketa azkarra eta arrakastatsua izan dadin.

Azterlan franko egin dira web orrien arrakasta-faktoreak neurtzeko, besteak beste, orri horien izaera instituzionala, eguneratze maila, beste webekiko estekak, diseinua. Web orriak eraginkortasunez hedatzeko laguntzen edo oztopatzen duten hipotesi horietatik guztietatik oroimenean iraurarazten hobekien laguntzen dutenen artean gehien frogatu dena izan da eragin bisualak indartzea lagungarri dela informazioa atxikitzeko eta irakurleari atsegin handiena emateko.

### 2.3.2 ■ WEB ORRIAK IRAKASKUNTZAN

Hizkuntza bat irakasteko web orriek dituzten ahalbideak itzelak dira dudarik gabe. Eskura dagoen informazioa, giza zientziak, zientziak edo teknologia arloetako edozein alderditan, eta egiten diren proposamen didaktikoak guztiz zabalak eta mugagabeak dira<sup>6</sup>, eta, maiz, sobera aldakorrak. Kasu honetan arazoa da ikaslea, Sarean nabigatzeko oinarriko eta kontuan hartzeko moduko trebetasunak izan arren, ez dela gai informazio funtsik gabekoa edo interesatua bereizteko, horren fidagarritasuna neurtzeko eta, are gutxiago, hainbeste informazio-iturri sintetizatu eta konparatzeko eta ateratako datuak, informazioa, alegia, ezaguera egituratu bihurtzeko. Eskolari dagokio, beraz, ikasleak prestatzea, irakurle kritiko eta burujabe bilaka daitezten.

## 2.4 Blogak

Weblogak egunkari pertsonalak dira, non, eskuarki, egile batek edo batzuek edozein gairi buruzko iruzkinak argitaratzen dituzten, erregulariki eta atzekoz aurrera ordenatuta kronologikoki. Gainera, beste orriekiko loturak ere itsasten dituzte eta bisitarien edo irakurleen iruzkinak onartzen, eta horrela elkarrizketa sortzen da. Mota askotakoak dira, batzuk pertsonalak, beste batzuk kazetaritzakoak, korporatiboak edo enpresarialak, hezkuntza arlokoak, etab. Blogen sorkuntza ausarki hazteaz gain –2005ean 50 milioitik goiti omen ziren–, sortzeko eta besteenganatzeko tresnak edozein erabiltzailearen esku jarri dira. Gaur egun dezente errazagoa da blogak idaztea, ezabatzea, neurrirra jartzea eta koordinatzea.

Blogak, “nabigazio-egunkariak”, alegia, on line motako egunkarien oinordeko dira, eta horien aurrekariak eta parekoak dira hainbat idazlek landutako egunkari pertsonalak edo literarioak; kontakizun itxura dute, hausnarketa moralak, politikoak, irudipenak, gertakariak biltzen eta kontagai bat garatzen dute. Literaturaren eremuan aipa daitezke, besteak beste, Juan Ramón Jiménez, Miguel Delibes, Adolfo Bioy Casares edo Mario Benedetti, egunkaria erabili izan baitute euren fikzio lanen hari egituratzaile gisa.

### 2.4.1 ■ HEZKUNTZA BERTSIO BAT: EDUBLOGAK

Hagitx desberdinak izan arren, blogak beti dira pertsonalak, hots, euren nortasun egiazkoa adierazten duten pertsona arruntak dira, egunkari digitalak zuzentzen dituzten profesionalak ez bezala, eta iruzkinak, estekak, alderantzizko estekak, argazkiak eta bideoak, sindikazioa –edukiak berriro hedatzea, alegia– eskaintzen dituzte. Hezkuntzaren arloan dagoeneko euren gisako ingurunea sustatu dute, edublogak<sup>7</sup>. Esan genezake irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari laguntza emateko helburua duten weblogak direla. Irakaskuntzaren eremuan tresna indartsuak dira, edozein maila, diziplina eta

<sup>6</sup> Joaquín M.<sup>a</sup> Aguirre Romero. “Literatura en Internet. ¿Qué encontramos en la www?” Revista *Espéculo* 6. (Idazleek behar bezala egituratu eta iruzkindutako web orrien adibide bat)

<sup>7</sup> [http://tiscar.com/?page\\_id=337](http://tiscar.com/?page_id=337)

programaziotara egokitzen ahal baitira, eta ikaskuntzaren ikuspegi eta pedagogia konstruktivistari lotzen zaizkio ezin hobeki –Piaget, Vigotski, Ausubel–.

Genero honen hezkuntza-balioa ikaslearentzat baliabide bat izatean datza, bere ikasbidea bizitzeko eta irakasleekin eta gainerako ikaskideekin komunikatzeko bide ez-formal bat izateko aukera izan dezan. Genero honen eusleak, teknologia digitalaren gainean alde aurretik duten ezagueragatik, ikasleak eurak dira. Egungo ikasleriaren belaunaldia Interneten garaietan sortu eta hazitakoa da, Sare-belaunaldi edo Net Generation deitzen dute, eremu digitala menderatzeko sen berezia du, begibistakoa da ikasteko modua aldatu duela eta baliabide hau hobeki datorkio belaunaldi honen izaerari.

IKTak erabiltzearen alde aipatu diren arrazoi guztiez gainera, esaterako hiritarren alfabetatze digitalaren beharra, hiritarrak prestatzea informazioa bilatu eta bereizteko gai izan daitezten, edukiak Sarean jar ditzaten, euren prestakuntza kulturala eta laneko lehiakortasun maila jasotzeko aurrebaldintza gisa, etengabeko prestakuntza izan dezaten, horietarako guztietarako dudarik ez dago edubloga irakaslearen orri pertsonala baino haratago doala, non “eskegitzen” baitu bere programazioa, bere bibliografia, bere oharra, bere egutegia, etab. Blog baten bitartez, irakasleak eta ikastunak batera inplikatzeko dira ikaskuntza lanetan, prozesuan horizontaltasun bat ezarri, elkarrizketa eta debatea sustatuz, ikaslea inplikatzeko, Sarean bere nortasuna eraikitzeke erantzukizuna ematen zaionean, bai eta, kontrolpeko autonomia lanean eta hartzaile multzo heterogeneoagoa eta ugariagoa ere.

Interneteko genero berri honen alde egoteko arrazoia ez da azken modan dagoelako, edozein teknologia motak oinarririk eta programazio sendorik gabe atarramendu onik izaten ez duen bezala, baizik eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen motibazioarekin eta harmenarekin hobeki egotzen den ikasteko modua indartzen duelako. DBHn aniztasunari erantzuteko zailtasuna, estimulurik eta autoestimurik eza, arreta eta kontzentrazio eskasia askotan aipatu baditugu ere, genero honen laguntzaz ikastunaren konfiantzan eta autonomian oinarritutako praktikak errazten ahal dira.

Adierazi den bezala, datu eta informazio kopuru eskerga dela-eta Internet itsaso bat bezalakoa da, non gure ikasleak erraz hondoratzen diren. Webloga tresna egokia izan daiteke ezaguera kudeatzeko, blogak bere oinarritzko diseinuari eusten baitio beti, eta irakasle egileak horren egitura eta diskurtso orokorra kontrolatzen du.

Idazlanetan, adierazpen idatziari dagokionez, weblogak ageriko konpromisoak eskatzen dizkio ikastunari, baina kezka desbideratzen ahal dira formazko alderdietatik –ortografia arazoak, azentuazioa, gramatikazkoak, lexikoak, idazle hasiberri edo atzeratuei hainbeste buruhauste sortarazten dizkienak, konpontzen ahal dira zuzentzaileen edo testuinguruko menuen bitartez– edukizko alderdietara –idatzitakoaren egokiera, erregetroa, egituraketa, koherentzia–, zinez erabakigarriak direnak, bestalde.

<sup>7</sup> [http://tiscar.com/?page\\_id=337](http://tiscar.com/?page_id=337)

Edubloga proposatzean asmoa ez da ikaskuntza gunea den betiko ikasgelaren ordean e-learning dinamikak edo urrutiko hezkuntzakoak ezartzea, kanpoko bide bat irekitzea baizik, nolabaiteko arbel elektronikoa, ikasleen motibazioa, jariatortasuna eta autonomia bultzatzeko.



.....





BETI MODU BEREAN IRAKURRI AL DUGU?



Gaur egun bakarka irakurtzen dugu, isilik, kontzentratuta, baina beti ez da horrela izan. Hor dugu san Agustinen anekdota ezaguna, Erromatik iritsi ondoren, nonbait, Milanen san Ambrosio apezpiku ospetsuari bisita egin zionean harriturik kontatzen digu “Irakurtzen zuenean, haren begiek orrialdeak ikuskatzen zituen eta haren bihotzak mezua ulertzen zuen, ahotsa eta mihia geldi zituela”. Hiponako Agustinen miresmena ulergarri egiten zaigu bere bizitza osoan aurreneko aldiz irakurketa mutuaren lekuko izan baitzen. Irakurtzeko modu horren lekukotasun solteak izan ziren lehenago ere, Euripidesen, Aristofanesen eta Julio Zesarren obretan, baina bat ere ez zen san Agustín bezain erabakigarria izan. Izan ere, “norberarentzat irakurtzeko modu hori” X. mendera arte<sup>8</sup>, gutxienez, ez zen Mendebaldean guztiz hedatu.

Ohitura hori egunerokoa eta automatizatua denez gero, ez gara ohartzen zernolako trebetasun konplexu eta sotilak jartzen ditugun jokoan inprimatutako testu bat deskodetzen dugunean. Gai gara letren tipografiak bereizteko, letra multzoak hitzetan biltzeko, begi kolpe batzuetan testuko lerro oso bat geureganatzeko, eta begirada batez somatzen dugu lerroalde bat osatzen duen ideia nagusia zein den. Era horretan gure begiak liburu baten lerroetan barrena lerratzen dira itsaspekari zaildu bat ozeanoko ur sakonetan bezala.

Urrungo hizkuntza bat, latinezkoa ez den alfabetoduna, demagun arabiera, errusoa, japoniera, ikastera ausartzen garenean, berriz ere ume bihurtzen gara; analfabeto hutsak bezala testu bat, gure begietarako jeroglifiko baten parekoa dena, ulertu beharrean gara. Hizkuntza arrotz horien alfabetoaz jabetu bitartean letra eta trakets ahozkatuko dugu eta haur ginelarik ama hizkuntza ikasten genuen antzera ibiliko gara. Gauza bera gertatzen zaie irakurle baldarrei, bere hizkuntzan silabaka, banan-banan, irakurtzen dutela, eta ez direla gai hitzak barreneko murmurioan bokalizatuz isilka irakurtzeko. Guk geure kolkorako irakurtzean bat-batean irakurketaren intrahistoria berreraikitzen dugu eta egintza horretan gorpuzten dira gizadiak mendez mende bildutako trebetasun horiek. Testu idatzien puntuazioa aski berria da. Pergaminoetan, papiroetan, Erdi Aroko eskuizkribuetan testua jarraikia izaten zen, hitzen arteko tarterik gabea. Hortaz, irakurri ahots ozenez irakurtzen zen, zeinu grafikoak bat etorri behar zuelako zegokion soinuarekin, eta irakurle trebatuak berak egiten zituen behar ziren etenaldiak, doinua, azentuak, egileak egiten ez zituenak<sup>9</sup>. K.o. VII. mendean geroz hasi ziren erabiltzen puntu eta jarrai, goiko puntua komarentzako, puntu eta koma, lerroaldeak markatzeko marra; beraz, idazkiak gaur egun ezagutzen dugun antolaera formalera egokituz joan ziren.

Liburuetan ere, batik bat XV. mendean inprenta asmatu eta zabaldu zenetik aitzina, gune grafiko eta tipografiko hobetuz joan zen, informazioa xeheki eta zehatz eman zedin. Letra mota ulergarriagoak sortu ziren, letra-multzo desberdinak, zurigunekiko orrialdea diseinatu zen, lerroak karaktere gehiegi gabe eratu ziren, ertzak jartzen hasi ziren iruzkinak edo oharra egin ahal zitezen, irakurlearen interaktibitatearen aitzinamendu gisa. Orrialdeak zenbakitzeak bide eman zuen edukien aurkibideak paratzeko, era guztietako

<sup>8</sup> MANGUEL, Alberto. (2005). *Una historia de la lectura*. Lumen. Bartzelona

<sup>9</sup> MANGUEL, A. *Op. cit.* 105-110 orrialdeak



aurkibide alfabetikoak, egileenak, gaienak. Irakurtzea eta aurrerapen editorial grafikoa eta tipografikoa batera ibili dira, halatan non irakurtzea bera anitz erraztu baita aurrerapen editorialari esker.

Eta horrela irau du sei mendetan, hasi XV.ean eta XX. mendera arte, baina ordenagailuak agertzean, alfabetatze elektronikoa deitu izan dena, testu idatziak eta horien iraupena eta sekuentziarioa espazioan eta denboran franko aldatu dira.

### 3.1 Ohiko irakurketa versus irakurketa hipertestuala

Galdera honako hau da: Internet eta IKTak agertzeak zertan aldatu du edo alda dezake irakurtzeko era? Mutur batean teknologia berrien, iraultza zibernetikoaren, web, Internet, teknologia digitalek ekarri duten aldaketa sakonaren, erabateko iraultzaren defendatzaileak ditugu. Horien ustez, irakurtzeko era erabat aldatu da, jada ez dugu lerroka, sekuentzien arabera irakurtzen, egileak aldeztetik ezarritako ordenan. Irakurtzeko ohiko moduek orain ez dute balio, irakurleak berak sortzen baitu bere patroia. “Hipertestua” nozioa da giltzarria, hitz horrek esan nahi du dokumentu batzuk aurkeztea, eskaeraren arabera adarkatzen edo exekutatzeko direnak. Sistema honen bidez, beraz, testuak, ahotsak, irudiak eta bideoak erabiltzailearekin elkarrekin izan dezakete. Horrela, bada, Sarean nabigatzen ari naizenean, dokumentu berri bat, pertsonala, originala sortzen ari naiz, lotura eta hiperlotura baimenduak, nik neronek hautatzen ditudan erabiliz.

Beste muturrean, aldiz, liburuak irakurtzea ezaguera erdiesteko modu bakarra dela uste dutenak daude. Gure kulturaren liburuaren esanahia da nor bere baitan biltzea eta gogoa egitea, zentzua eta ordena, Interneteko datu uholde kaotiko eta hierarkizatu gabeko ez bezala. Teknologia desberdinen erasoan aurrean liburuak beren iraunkortasuna frogatu dutela argudiatzen dute, eta jaitsi ordez gorantz egin duten argitaraldien kopuruengatik bakarrik ez, baita Interneteko unibertsoak liburu itxuran sistematizatzen dituelako bere ekarpenik baliotsuenak ere, bere iraupen gutxiko mintzoa letra inprimatuak babestutako gunean soilik salbatuko bailitza. Liburuaren heriotza iragarri zuten apokaliptikoek huts egin dute euren iragarpenetan.

#### 3.1.1 ■ LIBURUAK ETA ORDENAGAILUA, ELKARREN OSAGARRI

Webean zerbaiten bila hasten banaiz, erraz gerta dakidake informazio ugartasunak nire itxaropena asetzea eta emaitzen kopurua horren handia izanik behinere gai ez izatea hori guztia asimilatzeke. Adibide bat jartzearen, orain berean bilatu dut AEN –Arreta Eskasiaren Nahasmendua– delakoari buruzko informazioa, artikulua bat prestatzeko asmoz. Bilatzaile baten bidez gaitz hori dutenen elkarte baten orrialde ofizialera iritsi naiz eta galderarik usuenen atalean nahi adina erantzun jaso ditut. Wikipedia ere, erabiltzaileek musu truk eginiko ekarpenekin hornitzen den liburutegi birtuala, kontsultatu dut, “eztabaidako orrialde” batean. Horrela jakin dut pertsona helduek ere pairatzen dutela

.....

sindrome hori eta burmuin AENdun baten eta AEN gabeko baten funtzionamenduaren irudi bat kopiatu dut. Mark Twainen pertsonaia bat, Tom Sawyer, nahasmendu hori duen hiperaktibo tipikoa da. Twainen aipu bat, hiperlotura baten bidez lortua, irakurriz bukatu dut. Bada esaterik hori guztia liburuetan badagoela. Baina, nork dauka tamaina horretako liburutegi bat? Gure liburutegi gehienak xumeak dira, eta zer esanik ez gure ikasleenak. Eskutan daukat Gabriel Zaiden liburua, *Los demasiados libros* izenburukoa. Atzeko azalaren bidez liburuaren edukia gogoratu dut, aurkibidea berrikusi eta nik neronek eginiko azpimarra eta ohar batzuk berraztertu ditut. Egileak, humore onez eta ironiaz, euskarri gisa agertu zenetik liburuak dituen bertuteak goraiatzen ditu eta bide indartsuago eta hedatuagoen gainera jartzen du, hala nola zinematografoaren, telebistaren, egunkarien eta interneten gainera. Interesatzen zaidan kapitulua aurkitu eta berriz irakurri dut, “liburuaren gaitetze teknologikoa” izenburukoa. Bost minututan berreskuratu ditut erdi ahantzirik nituen ideiak. Horietako batzuk, euskarri digitalen desabantailaz mintzo denean, gaur egun berraztertu beharko lirakeke –kontuan izan liburua 1996an argitaratu zela–, baina beste batzuk indarrean daude.

*In medio virtus.* Klasikoetara itzultzea dateke, agian, egokiena. Onar dezagun liburuaren irakurketa lan sakona dela, bakarkakoa eta gogoetarako bidea. Baina informazioa bilatzeko edo gutun bidezko harremanetarako, arlo birtuala eraginkorra da, oso, eta edozeinen eskura eta nonahi dago. Saia gaitetze jarrerak adosten eta Manguelekin batera zera esan genezake: “horien ekintza-esparruak desberdinak dira; mundu ideal batean liburuak eta ordenagailuak gure lan-mahaian balukete tokia”.

### 3.2 Irakurtzeko gaitasun berriak

Izan ere, gure lan-mahaian eta gure ikasleenean batera daude, edo bake santuan pilatuta, liburuak, entziklopediak, eskuliburuak eta teknologia digitalak. Horrela dela erakutsi dugu. Begibistakoa da, noski, informazioaren gizarteak eta bere bitxi preziatuenak, Internetek, alegia, ez gaituela irakurri beharretik libratuko. Alderantziz, gai arraroenetako bati buruz eskaturiko informaziora hurbiltzea bera aski da edozein zorabiatzeko. Paper inprimatua dauden eduki guztiak formatu digitalera aldatu dira edo aldatzen ari dira, eta gainera ezin konta ahal eduki daude inprentatik behin ere pasatu gabeak. Badirudi Sareak duen xurgatzeko ahalmena, irentsi-beharra, mugarik gabea dela. Webak, nolabait esateko, izpilu handi baten antzera, zer garen erakutsi eta proiektatzen du, onerako nahiz kalterako.

#### 3.2.1 ■ INFORMAZIOA ETA EZAGUERA

Hala eta guztiz ere, metatzen den informazioa ez da nahitaz ezaguera. Hartzailleak berak antolatu behar du esanahia, testuinguru soziokultural bati hertsiki lotua egon ohi dena. Berriki egin den selektibitateko azterketa batean publizitateko iragarki bat egi-tea proposatzen zen, Estatuak langile autonomoei zuzendutako kanpaina instituzional bati buruzkoa, autonomoek Gizarte Segurantzaren kuotako partaidetza gehi dezaten. Gai desegokia eta zaila iruditu zitzaidan, harrigarria baita adin horretako ikasle batek

autonomoen sektoreko prestazioen arazoez zerbait jakitea, familiakoren bat tartean ez bada behintzat. Bada, kontua da batxilerrek hastapeneko zailtasun hura gainditu zutela, nola eta telesail bateko pertsonaia ezagun baten iragarkian azaldu argazkiak eta eslogan gisa erabilitako hitzak mezua ongi ulertzeko laguntza izan zirelako, eta horrela berretsi zuen azterketen zuzentzaile batek. Batzuetan, testuinguru sozial eta mediatiko batek eskaintzen dituen ezaguerak funtsezkoak dira mezu bati zentzua emateko. Gai honetaz publizitateak badaki zerbait.

Bilatzaileen bidez informazio baten bila ari garenean berehalako emaitza erdiesten dugu, datuak, alegia. Baina kanpoko zerbait da, formarik gabekoa, egituratu gabe baitago, metagarria eta automatizatua. Ezaguerak, aldiz, barnekoa edo barneratutakoa behar du izan, egitura edo erlazio lotuen sistemaduna, mantso hazten da, gizakiena da soilik eta ekintza gidatzen edo onartzen du. Xake-makina batek ongi joka dezake, are gehiago, munduko txapeldunari irabaz diezaioke (“Deep Blue” Gary Kasparoven kontra), baina ezin izanen dizkio jokoaren erregelak hasiberri bati “azaldu” edo kirol honen historiari buruzko mintzaldi bat eman. Jarduera hauek gizaki batek soilik egin ditzake.

Ildo horretatik jarraikiz, irakurtzea da ezaguerara iristeko giltzarria. Bistan da irakurtzeko modua aldatu dela, Interneten irakurtzeko bestelako trebeziak behar dira, bilatzaileak erabiltzea, bilatzeko irizpideak txertatzea, datu-baseak kudeatzea, fitxategiak ireki eta gordetzea, irudiak deskargatzea; baina mezu bat arretaz, zehaztasunez eta ongi ulertuz irakurri beharra ezin da saihestu. Batik bat, informazio kopurua egundokoa delako, guztiz aldakorra, maisutza irizpiderik gabekoa eta Sarean kritika egiteko edo kontrajartzeko aukerak urriak direlako.

### 3.2.2 ■ IRAKURLE KRITIKOAK PRESTATZEA

“Alfabetatze kritikoak” irakurleak prestatzea du helburu, kode bat interpretatzen, deskodetzen jakiteaz eta gaitasun semantikoa eta pragmatikoa, hots, komunikatiboa, erakusteaz gainera, kritiko edo analista baten eginkizuna bere egiten ikas dezaten, horretarako Diskurtsoaren Analisi Kritikoaren ildotik testuaren gaineko iritziak, balioak, interesak identifikatuz<sup>10</sup>. Irakurle kritiko batek diskurtso edo hizkuntza-produkzio batean antzeman beharko luke edo antzeman lezake egilearen xedea, diskurtsoaren generoa edo modalitatea, anbiguotasuna, konnotazioa eta ironia, erabilitako ahotsak, argudioen sendotasuna eta bideragarritasuna, alde zuzeneko diskurtsoak, irakurlearen profila eta egilearen nortasuna.


Hizkuntza eta literatura arloko kideek aspalditik egin dute gazteei “literaturaren irakurle” izateko prestakuntza emateko ahalegin zintzoa, liburuak eta, batik bat, literatura, fikzioa nahiz saiakera, atsegin izan dakizkien. Ez nago ziur hori ote den gure zeregin behinena. Literaturaren irakurleak sortzeko lan horrek arrakasta izan dezan behar-beharrezkoa da ingurune sozial baikorra eta pizgarria izatea, hala familian nola gizartean eta

<sup>10</sup> Ruth Wodak eta Michael Meyer. *Métodos de análisis crítico del discurso*. Gedisa 2003. Bartzelona

.....

komunikabideetan; baina, horrelako ingurunea, sentiberatasun estetikoa, emozioa, izate-  
tik urrun gaude oraindik, eta zaila da horiek txertatzea eta are indarka ezartzea. Jakina,  
eta horren alde egiten dut, irakurle porrokatuak gutxi izanik ere, izan izanen ditugu  
geure ikasgeletan, eta hori pozgarria da guretzat. Baina horrek ez du zerikusi handiegi-  
rik nahi genukeenarekin.

Denok dakigu, XXI. mendeko eskolako ikasleek edozein motatako euskarrian irakurtze-  
ko gai beharko dutela izan. Edozein diskurtso, mezu, testu eta irudi kritikoki ulertzeko  
gai, eta horrek berekin dakar web orrien erabilpena eta sorkuntza eta, orobat, hipertes-  
tuen prestaketa, Interneteko diskurtso-generoen, posta elektronikoaren, forum, txat,  
albiste multzoen, eta abarren curriculum-erabilpena. Gaitasun horiek irakurketari bere  
garrantzia, nolabaiteko giltzarri izate hori, itzultzen diote, baina, bidenabar, erronka berri  
eta erakargarrien aitzinean jartzen dute.



**4**

IKASGELAKO PROPOSAMENAK



## 4.1 Web orriak

Ikastetxeetan ordenagailua eta Interneteko lotura aski hedatu baldin badira ere, ez da gauza bera suertatu gela barrenean curriculum-arloen edukietarako IKTak erabiltzeari dagokionez. Adibide gisa, berriki egin diren estatistiketan agerienez, aurreko urtean Espainiako ikastetxeen %45ek bakarrik erabili dute ordenagailua, Europar Batasuneko %61,4en aurrean. Alabaina, %95ek bazuten Sarerako sarbidea<sup>11</sup>. Horren arabera, gainera, informatikako baliabideen erabilera nabarmen handiagoa da Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan DBHn eta Batxilergoan baino; handiagoa da, halaber, landa eremuan hiriguneetan baino.

Batzuen eta besteen arteko alde horien arrazoiak desberdinak badira ere, esate baterako ikasle kopuruarekin alderatuta ordenagailuen proportzio eskasa, ezagueren transmisioa zamatzen duten ohiturak eta irakasleen informatika arloko prestakuntza urria, ez dago ukatzerik gelan IKTak bultzatzea ez dela borondate hutsezko kontua, aitzitik, zerikusia duela hezkuntza proposamenekin, arloetako curriculumetan oinarrituz egituratzen direnekin.

Ikasleek ere ez dute eskola lanetan ordenagailua lanabes gisa erabiltzeko joera handiegirik, haientzat jostetako eta denbora pasako tresna bat baizik ez baita. Hala eta guztiz, ordenagailua erabiltzea bide egokia litzateke idatzizko produkzioak, lanak, testu iruzkinak, aipamenak, apunteak, azalpenak hobetzeko, zuzentzeko eta indartzeko. Harrigarria da, baina ikasleek euren eskola lanerako oso kontserbadoreak dira, gehienek nahiago dute eskuz idatzi, boligrafoz eta paperean, ordenagailua erabiltzea baino, sistema analogoa nahiago elektronikoa baino, informazioa lantzerakoan.

### 4.1.1 ■ TREBETASUN DIGITALAK

Zalantzarik gabe, nabigatzaile askorentzat Internet datu eta zeinuen zentro itzela da, mugarik gabea, kaotikoa eta liluragarria. Paper inprimatuan mendez mende metatuz joan den ezaguera emariarekin konparatzeko asmorik gabe –hain zuzen ere, horietako asko Interneten irauliak baitaude dagoeneko–, gure ikasleek, seguru aski, sarean daukate, jada, euren ikasketetarako behar duten informazioaren parterik handiena. Horrek ez du esan nahi, ordea, informazio hori ikasleak berehala erabiltzeko modukoa denik. Lehen bazeagoen halako egilea edo halako gertakizuna sailkapen alfabetikoaren bitartez entziklopedia batean bilatzerik, baina gaur egun, mintzaira hipertestual bat, idazketa ez lineal baten diskurtsoa (Nelson, Pisanni) ongi menderatzea, ezinbesteko baldintza da ikaslea oihan birtualean gal ez dadin, bilaketa arrakastatsu baterako bidea garbitzeko gai izan dadin.

Zerbait ikertzerakoan, ez da aski ordenagailua erabiltzea, nabigatzea, hitzezko, ikonozko, soinu-zuko kodeak ulertzea bezalako trebetasunak izatea, nahiz eta arbuizatzekoak ez diren. Gure ikastunek, orokorrean hartuz, ez dakite behar bezala bilatzen, ehunka mila emaitzen artean hautatzen, fidagarritasun irizpideak aplikatzen, aurkitutako informazioa kontrajartzen eta

<sup>11</sup> *El País* egunkaria, 2-X-2006

erabiltzen, hondarrean ikuspegi pertsonal bat erabili ahal izateko. Esan nahi baita, generoak, dominioak, edukiak, helburua aztertzeko eta datuen segurtasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko gai den irakurle kritikoaren beharraz<sup>12</sup> mintzatzen ari gara.

Hortik ondorioztatzen da ikasleei prestakuntza egokia eman behar zaiela, amaraun handiak irekitako aukerak ahalik eta gehien aprobetxa ditzaten. Azken finean, eskola bera inplikatu beharko litzateke bete-betean ikasleen alfabetatze digitalean, irakurketa eta idazketa elektronikoetan, gogoan hartuz etorkizunean, heldutasunera iristean, egunero-ko komunikazio tresna hauek izanen dituztela, posta elektronikoa, web orriak, weblogak, txata, eztabaidaguneak...

#### 4.1.2 ■ INFORMAZIOA SAREAN. ADIBIDEAK

Eskoletan prestakuntza hori emateko modu bat izan daiteke curriculum arloetan lantzen diren edukiekin eta prozedurekin loturiko informazioa bilatzeko eta tratatzeko lan praktikokoak egitea. Zehatzago esateko, adibidez, gure ikasleei eskatzen diegu idazle baten gainean, zeinen obra irakurri baitugu ikasgelan –eleberrri baten zati bat, ipuin bat, elezahar bat–, gehienez ere hogeitaz hamar laburpena egin dezatela. Bilaketa gidatu bat egiten luke, eta horretarako hainbat helbide emanen dizkiegu –Interneteko URL helbidea–, egileari buruzko entziklopediako orrialdeak, seriotasun osoko orrialdeak beste informalago batzuen aldamenean, diseinu ezberdinetakoak eta era askotako edukiak, batzuk ofizialak eta beste batzuk partikularrek prestatuak, batzuk ingelesez, nork bere sintesia idatzi eta idazlearen berri ikaskideei azal diezaien<sup>13</sup>. Literaturako egile horiek ezagunak dituzte horien narrazioak edo poesia DBHko bigarren zikloan izan dituztelako ikasgai.

J. R. Tolkien:

- [http://www.wikipedia.org/wiki/J\\_R\\_R\\_Tolkien](http://www.wikipedia.org/wiki/J_R_R_Tolkien)
- <http://www.tolkien.org.ar/tolkien.php>
- <http://www.anarda.net/>

Oscar Wilde:

- [http://www.ciberoteca.com/search/autor\\_mes.asp?idAutor=35](http://www.ciberoteca.com/search/autor_mes.asp?idAutor=35)
- <http://www.cervantesvirtual.com/FichaAutor.html?Ref=654>

Italo Calvino:

- [http://www.wikipedia.org/wiki/Italo\\_Calvino#Cuentos](http://www.wikipedia.org/wiki/Italo_Calvino#Cuentos)
- <http://www.themodernword.com/Calvino/>

Gustavo Adolfo Bécquer:

- <http://www.geocities.com/Paris/Metro/3118/>
- <http://www.xtec.es/~jcosta/>
- <http://www.los-poetas.com/a/biobeq.htm>

<sup>12</sup> D. Cassany. *Tras las líneas*. Anagrama. Bartzelona, 2006

<sup>13</sup> [http://www.ucm.es/info/especulo/numero6/lite\\_www.htm](http://www.ucm.es/info/especulo/numero6/lite_www.htm) (Egileak, Joaquín M.º Aguirre Romerok, artikulua honetan literaturaren sortze lana aztertu du eta literaturarekin zerikusia duten helbide ugari eman ditu).

.....

Esperientzia honen emaitza honela laburbil daiteke: eskaintzen zitzaizkien orrialdeetako bat bakarra erabili zuten ikasle gehientsuenek eta elkarri hitzez hitz kopiatu zitzioten edukiak; beste batzuek informazioa sintetizatu egin zuten testu berri bat sortuz, baina web orrietako batean soilik oinarriturik eta, azkenean, gutxi batzuk gai izan ziren orri pare baten edukiak bata bestearekin konbinatzeko eta, ondorioz, egileari buruzko testu bat idatzi zuten, originala, neurri batean bederen, baina norberaren iritzirik erantsi gabe eta gomendatutako orrialdeen mintzamolde formal eta neutroari jarraikiz.

Jarduerari buruzko autoebaluazioan ikastunek agerian jartzen dute gauzak zailtzen dituela orrialde gehienetan ematen den informazioa neurritz gainekoa izateak eta era horretako bilaketetan ez dutela esperentziarik. Onuragarritzat jotzen dute web orrietako mintzoa ulergarri izatea, oro har, eta eskatzen diren datuak azkar aurkitzen direla. Ikastun gehienek irudi askoko eta testu laburreko orrialdeak hobesten dituzte, esate baterako izen sintagmek osatutako tituluak, eta zenbaitetan aurkibideko edo azaleko orrialdeari bakarrik erreparatzen diote. Bilaketako estrategiarik ezak, bai eta ematen den informazioa, egilearen sinesgarritasuna edo hura babesten duen entitatea aztertzea ere, era horretako ariketetan eragin handiena duten alderdiak dira.

## 4.2 Webquest bat eratzea

Webquestek (WQ) web orrien azpimultzo bat osatzen dute eta bereziki irakaskuntzarako zuzenduak daude. Saretik datozkien baliabideak baizik ez dituen jarduera baten egitura itxia dute eta hezkuntza komunitatearen zerbitzura jarri dira. Esan dezakegu ikaskuntzaren ikuspuntu konstruktibista baten filosofia dutela, lana proiektuen eta eginkizunen dinamikan oinarritzen dutelako. Bernie Dodgek sortu zituen San Diegoko unibertsitatean, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera, eta Tom March aipatu izan da genero hori gehien garatu duenetako bat izan delako.

Webquest batek puntu finko batzuk dituenez, kanpotik erraz ezagutzen da. Sarreran, egilea edo egileak, ikastunentzako helburua eta eginkizuna modu erakargarrian eta ulergarrian aurkezten saiatzen dira. Eginkizunean argi zehazten da prozesuaren bukaeran ikasleek zer ekoitzi beharko duten. Izan daiteke, esaterako, diapositiben aurkezpena egitea, CD bat, elkarrizketa bat, artikulua bat edo literaturako kritika bat. Zereginak banabanaka aipatzen dira, curriculum jarduerak sailkatzeko hagitx baliagarria den taxonomiaren arabera. Prozesuak berak zehazten ditu eman beharreko urratsak. Baliabideek web guneen zerrenda bat osatzen dute, webquesta sortu duenak aldeztatik kokatuak eta ordenan jarriak. Baliabideak behar adina izanen dira eta erakargarriak, eginkizunak eskatzen duen informazioarekin. Ebaluazioa egitean argi azalduko da ikasleak nola, zein iritzirekin eta tresnekin ebaluatuko dituzten. Azkenik, bukatzeko, ondorioak ateratzen dira, zeinetan irakasleak azpimarratzen baititu proposamenaren nondik norakoak eta mugak, zertan hobetzen ahal den eta parte hartzaileen iradokizunak, autoebaluazio gisa.



## 4.2.1 ■ ESPAINOLA ATZERRIKO HIZKUNTZA ERAN IRAKASTEKO WEBQUEST BAT

Webquest bat nola egituratzen den irudikatzen “Bidaia dezagun Espainian barrena”<sup>14</sup> izenekoak balio dezake. Erabiltzaile autonomoentzat Espainola Atzerriko Hizkuntza gisa irakasteko pentsatua baldin bada ere, ez dugu ahantzi behar, Europako Kontseiluak onarturiko sailkapenari jarraikiz, Bigarren Hezkuntzako ikasle gehien mailak ama-hizkuntzan B1 eta B2 direla. Eginkizuna da Power Pointean Espainiako hiri bat, “amestutako hiria” gogo beroz aurkeztea, zeinean ikasleak bere familiaren eta lagunen gidari pribilegiatu baten papera beteko duen. Ahozko azalpenak emateko idazlan bat prestatu beharko du –irakurtzeko ez, ordea, laguntza gisa baizik– eta ustezko herrialde jatorrizkoarekin dauden diferentzia kulturaleri buruzko saiakera bat. Bukaera, jatetxe batera bisitaldi batek eta tokiko errezeta baten prestaketak emanen diote.

Eginkizun horretarako Interneteko baliabideak daude eskura, funtsean turismo eta kulturako informazio orriak dira, hiriei, jaiei, gastronomiari buruzko sailak, bai eta informatikari, irudikatze grafikoetarako power point arloko tutorialei eta wordeko sailei buruzkoak ere. Eragozpen gisa norbaitek esanen luke webquest batek hasieran programazioko eta diseinuko ahalegin handia eskatzen duela eta baliabide informatikoekin nolabait ohitua egotea. Hala ere, behar diren ezagupen informatikoak erdi mailako erabiltzaile batenak baino ez dira eta, bestalde, baliagarria da, oso, ondorengo kurtsoetarako, beste maila batzuetara egoki daiteke eta ikasleen talde-lana sustatzeko balio du –gehienbat bizpalau laguneko taldeentzat pentsatuak daude–. Interneteko dominio batzuek dohaineko txokoa eskaintzen diete webquestei eta Hezkuntza Kontseilaritza anitzek euren atarian kokatzeko baimena ematen dute.

## 4.3 Posta elektronikoa

Ez dago zalantzarik posta elektronikoa dela sarera hurbiltzen diren pertsona helduei Internetek eskaintzen dizkien pizgarrietako bat eta baliabide baliotsuenetako bat. Adiskideen, ezagunen, elkartekideen nahiz zientzia eta kultura arloetako profesionalen artean ausarki erabiltzen da, web orrien gaintetik, lehen esan bezala. Nerabeen artean, aldiz, sarbide hori ez da horren erabilia, haienezat pizgarriagoak diren beste generoen aldean, hala nola txata, messengerra edo bloga, hurbilago somatzen dituztelako komunitate birtualak, kideak, adiskideak, gustu beretsuko taldeak, filiak edo fobiak. Baina tresna hori, menderatu behar duten idazmolde bat izateaz gain, etorkizunean guztiz onuragarri izanen zaie derri-gorrezkoak bukatu ondorengo ikasketetan eta euren lanbide eta hiritar bizitzan.

## 4.3.1 ■ KEXUA EDO ERREKLAMAZIOA EGITEKO IDAZKIA: ADIBIDEAK

Egitan, DBHn egiten diren erredakzio edo idazketa lanetatik anitz bidera daitezke posta elektronikoz edo e-mailez. Lehenbiziko kasuan, 3. mailako ikasleei abiapuntuko egoera bat ezarri diegu, hau da, azken oporraldian iruzur egin dietela zerbitzu bat kontratatzean edo produktu bat erostean. Ohartu dira enpresak edo dendak web orria

<sup>14</sup> [http://www.eduteka.org/WQ\\_soc.0002.php3](http://www.eduteka.org/WQ_soc.0002.php3)

duela eta, horrezaz gainera, harremanetarako lotura bat, erreklamazioak, kexak edo iradokizunak egiteko. Ikasleek idazki bana prestatu behar dute, erreklamazioaren arrazoiak adieraziz eta konponbide bat proposatuz. Beraz, engainatu edo iruzurtu duten kontsumitzaile baten gisa jokatu behar dute.

Ikus ditzagun idatzitako testuen pare bat adibide:

**Igorlea: A. A.**

**Hartzailea: «Lau urtaro» denda**

**Gaia: Erreklamazioa**

Andere estimagarria:

Joan den abuztuaren 28an sartu nitzen (sic) zure dendara eta jertse beltz bat erosi nun (sic), arront (sic) polita, nire anaiarentzat. Etxera iritsi eta konturatu nitzen jertseak txanoan zulo bat zula (sic) eta berehalaxe itzultzera joan nitzen. Dendako neskak ongi hartu nindun (sic) eta esan zidan hura bezalako jertserik ez zeukatela eta ezin zidala dirua itzuli.

Nire proposamena da beste jertse bat, erositakoa bezalakoa ekartzea, eta ezin bada, jertseagatik pagatutakoa niri itzultzea.

Adeitasunez, zure erantzunaren zain,

**Igorlea: E. D.**

**Hartzailea: Lukas burdintegia**

**Gaia: Erreklamazioa**

Zuzendari jn/and.

Uda honetan, juxtu ekainaren 22an, zure dendara inguratu nitzen (sic) aire egokituko aparatua bat erostera, zeren iragarri baitzuten bero bolada bat, itogarria, etortzeko zela.

Zure dendan modelo bakoitzaren abantailen eta desabantailen berri eman zidaten, behar bezala, eta azkenean Siemens markakoa aukeratu eta 120 eurotan erosi nun (sic).

Etxera iritsi eta aparatua instalatu nahi izan nun, baina hondatua zegola konturatu nitzen, zeren albo batean kolpetxo bat baitzeukan. Huskeria bat zelakoan piztu egin nun. Aparatuak ez zun (sic) funtzionatzen eta arrazoi horregatik (sic) zure dendara hots egin nun eskatuz baten bat bidaltzeko hura konpontzera. Hogei egun pasa-tu dira eta oraindik ez da inor etorri eta egiten ari den beroarekin kiskalita nago.

Soluzio bakarra da baten bat hona etortzea aparatua konpontzera edo bestela funtzionatzen duen beste tresna bat ekartzea.

Zure erantzunaren zain,

Idatziriko postek, generoaren egiturazko ezaugarrietara egokitzeaz gainera, tipologikoki lehenengo pertsonan kontaturiko narrazio-testua ekoizten dute, bertan kontaktzen delarik salgai bat nola erosi den, eta ondoren nola aurkitu zaion makurren bat edo akatsen bat, eta azke-

nik lerroalde motz bat irtenbide gisa proposamen bat egiten duena. Nolanahi ere, ariketa honi funts handiagoa ematearren, posta elektronikoko korporatiboa jar daiteke eskumenean, horrela mezuei erantzuna eman dakieke, minimoak betetzen ez dituzten ariketak bueltatu eta, batu-ketako ebaluazioa ere eman daiteke, ikasleak mintzamolde formalarik eta errespetozkoari eutsi diezaioteko, genero honetan nagusi den formaltasunik gabeko eta lagunarteko mintzamoldea baztertuz. Horrela, agian, ikaslea bere buruaz seguruago sentitzen ahal da.

Egiten diren akats ortografikoek badute zerikusirik testu informatikoetan egin ohi direnekin, hala nola, “joan nitzen”, “ikus nu”, “deitu nu” “arront polita” “zulo bat zula”, “ongi hartu nindun” eta beste hainbat akats. Gainera badira beste batzuk hauteman arren zuzendu gabe gelditu direnak. Lehenbiziko multzoari dagokionez, testuinguruko menu bat aski litzateke akatsak agerrarazteko, baina gure ikasleek ez dute, arruntean, horrelakorik erabiltzen.

Kohesioaren arloan, hutsegite arruntenak errepikazioak edo loturen desegokikeriak izan ohi dira (zeren... zeren..., arrazoi horregatik...), lexikoaren aldetik ez dago zehaztasunik (han zegoen neska... baten bat bidaltzea), sinonimoak ez dira erabiltzen (dendara..., dendara...), eta erreferenteak galtzen dira (beste jertse bat, hori bezalakoa...) Idatzitako testuak koherenteak izaten dira, agian eskasiarik nabariena “gaia” izan daiteke, ez baita “kexa” edo “erreklamazio” generikoa baino haratago joaten, garrantzizkoa izan arren gutunean garatuko den gaia ongi zehaztea.

#### 4.3.2 ■ SALMENTA IRAGARKI BAT

Bigarren kasu honetan, proposatzen dizuegun egoera honako hauxe da: zuen familiak erabaki du etxebizitza salmentan jartzea, erosle bat azaldu da, oso interesatua, eta posta elektronikoko bat, etxebizitzaren deskribapenarekin, igor diezaiotzuela eskatu dizue. Ikasleek bete beharreko rola da saltzaile espezializatu batena, idazteko duen trebetasunagatik erredakzioaren arduradun dena. DBHko hirugarren mailako neska batzuek idatzitako bi e-mail dakartzagu hona.

**Igorlea:** O. O.

**Hartzailea:** Pertsona pribatu bat

**Gaia:** Etxebizitza baten salmenta

Pozten naiz nire etxebizitzaz interesatu zarelako. Nire etxea Azpilagaña auzoan dago, Alzania erreka kaleko 19. atarian, 14. pisuan. Aurreko aldeak parkera jotzen du eta albo batek ikastetxe publikora. Konturatuko hitzen (sic) goreneko pisu bat dela. Egongelako leihotik ia Iruña osoa ikusten ahal duk. Etxebizitzak 100 m<sup>2</sup> dizkik eta berokuntza indibiduala. Hiru gela zeuzkak, egongela eta hiru bainugela. (...) Egongela franko handia da (35 m<sup>2</sup>), eta horrek bide ematen du bertan jantokia jartzeko, egoteko eremua eta lan egiteko lekua. (...) Eraikina oso altua den arren, ez dago arazorik igotzeko edo jaisteko, launa pertsona hartzen dituzten bi igogailu ditu, eta zortzi pertsonarentzako karga-igogailu bat.

*Igorlea: A. E.*

*Hartzailea: Erosle bat*

*Gaia: Txaletaren salmenta*

*Mila esker nire eskaerari erantzuteagatik eta etxearen gaineko interesa agertzeagatik. Hemen azaltzen dizuet etxea non dagoen eta zein egoeratan: aspaldi eginiko etxea da, XVIII. mendekoa, hor nonbait. Mediterraneo itsasotik gertu dago. Hiritik urrun samar, baina hiri-garraio ugarirekin, hango egonaldiak eroso egiteko. Etxeak 200 m2 ditu, lorategia barne. Ez du igerilekurik, zeren itsasoa ber-bertan baituzue. Etxeak hiru solairu ditu, garajea eta terraza bat handia. Beheko solairuan sukaldea dago, egongela eta bainugela bat. Sukaldea modernizatua dago (bitrozeramika, marmolezko zola...) baina egongela eta bainugela harri trinkoz eginak dira. Lehenengo solairuan logelak daude. (...) Hirugarren solairua azkena da, logela bat besterik ez dauka eta pasabide bat terraza zabalera, zeintatik itsasoa ikusten baita. Garajea ez da beste munduko gauza, ezta trastegea ere, bainan ongi datoz trasteak gordetze-ko. Hori da dena, gustatu zaizuelakoan. Zuen erantzunaren zain,*

Testu hauek guztiak deskribapena lantzen den unitate batean kokatzen dira. Ikasleari hurbi-leko deskribapen topografikoaren testu bat presta dezala eskatzen zaio, adibidez bere etxe-arena, begiratu batean ematen duena baino zailagoa dena, bestalde. Posta zerbitzuek kontuan hartzen dute hartzailea, hots, eroslea eta haren itxarobideak, baina errespetuzko trataeran hasi arren, gero nekez eusten diote horri, (konturatuko hitzen, hiru gela zeuzkak...) eta frankotan ez dute azken agurreko formularik sartzen. Akatsik arruntena etxebizitzaren deskribapenean “nahasmena” izan ohi da, “ikustaldi gidatua” eginen balute bezala. Transkribatutako bi iragarkiek datu orokorrak ematen dituzte: azalera, orientazioa, prestazioak, etab., erosle batentzat interesgarriak, eta ez dira xehetasunetan galtzen. Bi kasuotan zehaztasun lexikoaren aldetik akatsak daude (“konturatuko hitzen” dio “pentsa dezakezunez” esan beharrean, “bide ematen du”, “aukera dago” esan ordez, “egonaldia” “sarbidea” jarri ordez, “sukalde modernizatua”, “sukalde berritua” jarri beharrean), idazkia premiarik gabe luzatzen duen azalpenen bat (arazorik ez igotzeko edo jaisteko..., ongi datoz trasteak altxatzeko...), beharrezkoak ez diren modu-aditzlagunak (XVIII. mendekoa, hor nonbait). Gainera badira lokarri batzuk ez oso egokiak (“zeren ber-bertan baituzue”, horrelakoetan hobe “baina” erabiltzea, besterik gabe) edo “Zeintatik...” erlatibozko perpausaren aurreko puntu eta jarrai hori, menpeko perpausa seko mozten duena.

#### 4.3.3 ■ ADISKIDETASUN GUTUNA. ADIBIDEAK ETA IRUZKINA

Arestiko bi proposamenak egiantzekoak ez ezik benetakoak dira eta, gainera, diskurtso-genero berri bat lantzen dute, testu desberdinak moldatuz, narraziozkoak, deskriptiboak, azalpenezkoak, etab., baina, beti ere, ezkutuko hartzaile bat dute: irakaslea, nota

jartzeko boterea duena. Jakina, hezur-haragizko hartzailea izanez gero, adin berekoa, liluratu eta interesatu beharrekoa, idazlanerako motibazioa biderkatu egingen litzateke. Horixe da, hain zuzen ere, hirugarren proposamena: adiskidetasun gutuna.

Ariketa hori COFES (nerabeen sexu hezkuntzarako zentroa) programa baten barnean dago, izenburu honekin: “e-mail bat bidaliko dizut”. Bi zentrotako ikasleak, bata pribatua eta beste publikoa, gutun bidez harremanetan jartzen dira, aldeztatik diseinatutako formatu batekin posta elektronikoa erabiliz. Zenbait gutun trukatzeko dituzte elkarrekin aurretiaz irakurri eta adostutako errespetuzko eta kortesiazko protokoloaren arabera. Jarduera irakaskaiaren barnean burutzen da. Mezu horietako batzuei buruzko iradokizuna egin dugu:

**Igorlea: Ainhoa**

**Hartzailea: 38 zenbakiko ikaslea**

*kxo!!!!!! Idaztera ausartu nauk nire lagun koadrilla handitzea gustatuko litzaidakeelako, mla baldin bahaiz hire hobien berri izan nahi nitek, zein motatako mska gustatzen zaijan, nolakoa haizen, nongoa... Hire erantz espero diat, beno, ni nolakoa naizen esanen diat: arrotxako nsk I nauk, mska aditzea gustatzen zaidak, lasaia baldin bada hobe. Ez diat nitaz gauza gehiago esanen, gero erantzutean ez baitut jakin zer kontatu, beraz, hire erantz zain DESPEDITZEN NAUK, AGUR. AINHOA*

*Kxo, z mduz, Arrotxako nsk I nauk, 15 urtekoa, beltzarana, begi marroiak eta ia 1,70. A! Ene izena Itziar duk. Urduri samar jartzen naik ezezagun Ii e-mail I igortzeak, baina gustatzen zaidak. Lagunekin hortik zehar atratzea gustuk diat, era guztietako mska entzutea eta kirola egitea. Lagun berri I izan nahi baduk erantzun besterik ez duk. Ez zaik damutuko. Msk ITZI*

*Kxo! Z mduz! Ni hainbestean ere ongi. Egia esateko ez zekinat zer jarri, zera, niri e-mailaren kontu hori ez baitzait oso baliagarria iruditzen. Horregatik gustukoak ditudan esanen dizkinat: heavy metal eta, tira!, era horretako mska guztia, Avalanch, Metallica eta horrelakoak. Hip-hop (rap) ere gustatzen zaidan, eta bakailao mska ere zertxobait, baina ez sobra. (...) Hortik ibiltzea gustatzen zaidan, zera, Jarauta eta inguruko kaleetan barrena, baina gutxi edo asko alde guztietan ibiltzen naun. 17 urte dizkinat, DBHko 3. maila errepikatu ninan, Edu dinat izena. Oraiberean oso txungoa zaukenat graduatuaren kontua, bazekinat, ordea, zera, guztia estudiatzea dela. Hire gelako besteren Ii nire e-mail I iritsi zaiola uste dinat, aspertu baldin bada, ba, zera, nik agindu didatena egingen dinat, jeje. Ez zekinat zer gehiago jarri, horraitio, hor uzten haut. Tira!, agur bero I. EDU*

Gutunetan hasierako agurra jarri ohi dute, norberaren autoerreturatu baten zirriborroa, gustuak azpimarratuz, musikalak batik bat, adiskidetzeko gogoia eta azken agurra. Espontaneotasuna handia da eta erregistroa, elkarriketa estilokoa, ugaria. Okerrak franko, puntuazioa, irekiera zeinuak, tilde diakritikoak, baina inola ere ez txatean adina, jardueraren kontrol akademikoa baitago. Ahozketasuna antzeratzen duen erregistro

.....

horretatik erabiltzen diren laburdura arruntak ere sartzen dira SMStan (kxo, kaixo jarri orde; msk, musikaren orde; nsk, neska jarri beharrean), harridura marka errepikatuak eta zerbait azpimarratu nahian letra larriak jartzea, idazketa fonematikoaren grafiak (tx, k), onomatopeiak (jeje), apokopeak (*Arrotxa*, *Arrotxapea* jarri orde; *Edu*, etab). Informaltasuna, berdinen arteko harremana, hiketan ez ezik hitz betegarrietan (*beno, tira, zeren... zeren...*) zehazgabetasunetan (*hortik ibiltzea...*), eta gazteen mintzamoldean (*txungoa...*) ere nabari da.

Dudarik gabe ariketa hau 4. mailako bi taldeentzat gogokoena izan zen eta, jarduera arautuak aurkezpeneko bi gutun besterik ez zituen arren, igorlearentzako erantzunarekin, bikote askok elkarri gutunak bidaltzen jarraitu zuten denboraldi batez.

#### 4.4 Komunikazioaren gune birtualak

Eskolak eragin gutxi izateaz gainera ez du ezagutzen ere gune birtual handi hori –ziberespazioa– zeinean egunero mundu osoko miloika gazte mugitzen baitira. Hala ere, bere zeinuak eta legeak dituen ingurunea da, eta bere baitan nerabeek trebetasun sozialak garatzen dituzte eta nortasun bat eraikitzen. Gainera, baditu halako ezaugarri batzuk non hizkuntzalaritzaren eta paralinguistikaren arloak funtsezkoak baitira.

Interneteko generoen analisiaren atalean aurreratu den bezala, txatak eta horren balio-kidea den messengerrak (MSN) harreman mota pribilegiatua osatzen dute eta horren arrazoia da neska-mutilek euren parekoekin eta lagunekin sumatzen duten etenik gabeko harremanak izan beharra.

##### 4.4.1 ■ TXATAREN ERREGISTROA ETA KODEAK

Harremanetarako bitartekoa eta bidea den aldetik, lehenago telefonoak bete izan duen paperaren oinordeko da txata, eta erabilgarria delako –ordenagailua beti piztua egon daiteke–, eta merkea ere badelako –horren gastua etxeko telefonoaren fakturan bildua dago– adin horretan sozialki elkarrekin aritzeko baliabiderik gogokoena da. Nolanahi ere, txataren elementuak eta MSNrenak ez dira berdinak. Lehenbizikoan, erabiltzaile batzuk edo anitzek lineako elkarrizketa izan ohi dute teklatuaren bidez eta Sarera konektatuta. Bigarrenean, erabiltzaileak aldeztatik aurretik finkatzen dira, ezagunak dira eta ezezagunei sarbidea debekatzen zaie.

Badirudi gaztetxoek messengerra, bere bertsio desberdinetan, nahiago dutela, eta sistema horixe dute gogokoena DBHko eta derrigorrezkoaren ondorengoko gure ikasleek. Unibertsitateko ikasleek txata eta messengerra txandakatzen dute.

Erregistro ez formala, lagunartekoa, zuzentasun linguistikoaren eta sozialaren konbentzio eta arauekin zerikusirik ez duena bide da nagusitzen dena, beste generoak ez bezala, adibidez web orriak, horiek erregistro formalagoen aldera jotzen baitute. Mintzairaren

kodea idatzizkoa da, alfabetoan oinarritzen da, baina ahozko hizkeraren ezaugarri horitua: apokopeak, deiktikoak, deitzailak, harridurazkoak, onomatopeiak... eta, ongi gogoan hartzeko, Sareak sortutako semiotikaren eragina du, zeinen irudikapen ezagunenak emotikonak baitira –emozioaren eta ikonoaren akronimoa–, sentimenak adierazten dituzten zeinuak.

Aldi berean garatzen diren gaien hariak testu batean elkarrekin agertzeak urratu egiten du gehien eskatzen den berezitasun bat, koherentzia, alegia. Txat baten testua bere horretan harturik linealtasunaren haustura suposatzen du, informazioa saltaka doa aurrera eta tarteka atzeraka egiten du, eta kanpotikako irakurle bati nahasia eta iluna egiten zaio. Oso antzeko generoa talde handi bateko elkarrizketa espontaneo da; hor, bistan denez, bat-batekotasuna da nagusi, ez dago aurretiaz finkatutako gairik, guztien interesak izan ezik, eta joera dago azpitaldeek, kidekoak izan nahiz ustekabeak, gaien jarraibideak ezar ditzaten.

Dena dela, elementu ez berbalak, –kinesikoak, karaktere fisikoak, ukimenezko jokamondea, arlo proxemikoa, keinuzko paralengoaia, ingurunearen neutralizazioa eta hitz izateira iristen ez diren ahots edo bokalizazioak, soinuak edo hotsak– ez izatean genero hau ohiko jardute diskurtsiboetatik aparte gelditzen da.

Txataren abiapuntu den komunikazioaren egoera berezia da: subjektuen, solaskideen anonimatua. Izengoitia –nicknamea– aurkezpen-txartela bezalakoa da, izen horren gibelean ezkutatzeko eta pertsonaia bat eratzeko bide ematen duena, txateatzen duenaren fantasia eta irudikapen guztiak elikatzen baititu. Izan ere, nerabeek genero hau hautatzen dute ezezagunekin solasteko eta harremanak izateko.

#### 4.4.2 ■ HIZKUNTZA EZAUGARRIAK

Idatzeko era, oro har, aski zabarra da, akats ikaragarriak egiten baitituzte, ortografian, gramatikan eta lexikoan, egoerak berak beharturik: abiadura handiko komunikazioa, hitza txanda motzetan hartzea, lerro bat gehienez ere, eta bihotz berotasunaren nagusitasuna zentzuzko hitzen gainetik. Gramatika eta sintaxia, beraz, bigarren mailako kontuak dira. Arretari eustea da helburua. Harremanari eutsi beharrez, dena da zilegi, hutsegiteak izaten badira ere.

Erabiltzaileak nolakoak diren, maila arruntenak eta lagunarteko hizkera izanen dira nagusi (enrollatu, piloa, txori ibili... ). Denek saihesten dituzte tildeak –hori Sare osoan gertatzen da, behar bada, horrelakorik ez duten hizkuntzen eraginez–, nahiz eta hizkuntza batzuetan diakritikoak izan eta anbiguotasuna sor dezaketen (gatzelaniaz, adibidez, “llego” eta “llegó” aditzek ez dute esanahi bera), presagatik hitzak biltzea eta akatsak egitea (oraiberean...), grafia fonetikoak eta SMSko mintzamoldetik heldu diren laburdurak (kxo, msk, nsk). Komak, puntuak eta letra larriak saihesten dira, galdera marka, ordea, hanpaturik ageri da, bai eta harridura marka, eten puntuak, onomatopeiak eta bukaera-ko zeinuak ere, behin eta berriz errepikatuak (????? ¡!!!!!! ..... jajajajaja uffffffff).

.....

#### 4.4.3 ■ MESSENGERRA: APROBETXAMENDU DIDAKTIKOA

Messenger bertsio desberdinen bat-bateko mezularitza programa gisa nagusi da gazetxoen artean, bai eta unibertsitateko ikasleen artean ere, ikerketa partzial batzuetan<sup>15</sup> jakitera eman denez. Kontaktuak erabiltzaileak berak bideratzen ditu, bere egiazko izen eta izaerarekin. Taldeak ez dira hain ugariak eta bestelako loturak izaten dituzte, adiskidetasuna, zaletasunak, ikasketak edo interesak. Bigarren Hezkuntzako ikasleek institutu bereko eta are ikasgela bereko eta adin beretsuko kideekin praktikatzen dute. Horren arrazoia lagunak etengabe gertu eta hurbil izan beharrean datza.

Komunikazioko eremu murriztu eta pribatu honek kortesiazko eta, oro har, zuzentasunezko arauak hobeki errespetatzea dakar berekin, idazkietan ahozkoatasuna erruz ageri bada er.

Antzeko generoak lirerateke debatea edo elkarrizketa bideratua eta mota askotako ahozko argudioen azalpena. Nahiz eta ama hizkuntzan solasaldi edo elkarrizketa espontaneoak hizkuntzaren ezaguera erdi nahiz goi mailakoa duten erabiltzaileekin lantzea zentzurik gabekoa dirudien, ikaskuntzaren gai dira, ordea, irakas-hizkuntzan egiten den ahozko argudioen azalpena eta elkarrizketa.

Eskolakideen interes eta afektuetatik hurbilekoak diren egoeretan, ahozko argudioak azaltzerakoan –ikasturte bukaerako bidaia, gidabaimena ateratzea, ikasketak uztea, “botelloiaren” kontua...–, familia edo gizartea bezalako hartzaile batekin emaitza bikainak lortzen dira. Eraginkorra izanen bada, jardueran aurretiaz ezarritako urratsak bete beharko dira, adibidez arrazoen zirriborroa, eskemaren hurrenkera, hitza hartzea eta grabaketa, eta azkenik ebaluazioa.

Messengeraren aprobetxamendu didaktikoa ez da behar adina garatu, proposamenak eta lanabesak, euren software eta guzti, badira ere, bide ematen dutenak elkarrizketa birtual bat izateko kideekin edo sarbide mugatuko maila edo gai bateko ikasleekin eta alde aurretik ezarritako helburuak dituztenekin. Hain zuzen ere, azterketa baten aurretik ikasle talde batekin kontsulta edo argitze saio batzuk egin daitezke, irakasgaiaren edukiei buruzko debate batean parte hartu edo familiarekin foro bat antolatu, guztientzat interesgarri diren gaiei buruz, esate baterako orientazio profesionalaren eta ikasketen gainean, irakasle trebatuaren eginkizunak eta tutore gisa dagozkionak txandakatuz.

#### 4.5 Edublogak

.....  
Erraz ulertzeko moduko definizioa eginez, edublogak egunkari batzuk direla esan daiteke, kronologikoki atzekoz aurrera antolatutako, eta horietan irakasleek informazioa, aholkuak eta laguntza ematen dute eta ariketak jartzen, euren esperientziak kontatzen dituzte eta euren iritzia ematen, hezkuntza nahiz curriculum gaiei buruz.

<sup>15</sup> [http://www.universia.es/portada/actualidad/noticia\\_actualidad.jsp?noticia=91207](http://www.universia.es/portada/actualidad/noticia_actualidad.jsp?noticia=91207)



Pentsa daiteke edublogen fenomenoaren hastapenean gaudela, baina diseinuari eta eraitzeko moduari erreparatuz, dagoeneko mota askotakoak daude. Hainbeste izanik, aski korapilotsua da Interneten bisitatzeko ahal diren hezkuntza-blogen ezaugarriak azaltzea. Nolanahi ere, eta aurreko orrialdeetan esandakora itzuliz, era horretako blogak komunikazio informala izatea ahalbidetzen duten tresnak dira eta egilearen ekarpenez hornitzen dira, azken batean bera baita horren arduraduna eta administratzailea, bai eta beste ikaskideen eta ikasleen ekarpenez ere, galderen eta iruzkinen bitartez.

Bigarren hezkuntzako institutueta irakasleen edublog landuenetan arreta jarriz gero, zeinak plataformetan<sup>16</sup> bildurik eta baliabide informatiko zabalak –software– dohainik ematen dituzten web guneeetan kokaturik baitadude, ikus dezakegu blog horiek hezkuntza errealitatearen eta gelako lanaren zerbitzuko tresnak direla.

Blog batek dituen ezaugarriez gainera, mailakako eta irakasgaien araberako arloen programazioa ere ematen dute kategorien izenburupean edo menu-barran. Batzuetan osoki ematen dituzte helburu berariazkoak, edukien ildo nagusia, metodologia, ariketak eta soluzioak, ebaluatzeko irizpideak, PDF formatuko artxiboak edo beste eratakoak atxikiz.

“Estekak” izenburupean aldizkariaren edo argitalpenaren web helbideak, kideen beste blogak edo Interneteko orrialdeak eskaintzen dira, duten interes didaktikoarengatik egileak nabarmenduak. Materialen artean sartzen dira, halaber, Power Point edo antzeko programetan eginiko gaien aurkezpenak, edubloga kokatzen den gunean eskainiak, irudi ilustratiboak, grafiko interaktiboak, edo grabazioak ikus-entzunezko euskarrian.

#### 4.5.1 ■ BLOGAREN ESPERIENTZIA PERTSONALA

Lerro hauen egilearen nabigazio-egunkari edo edublog pertsonal batek helburu hauek ditu: bere ikerlana eta esperientzia Hizkuntzaren eta Literaturaren arloan egituratzea eta programazioa antolatzea, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek euren kabuz ikasteko bidea izan dezaten, elkartrukerako bidea eraikitzea, arloko beste irakasleekin edo urrungo geografia eta testuinguru soziokulturaletan IKTen esparruan esperimentatzen ari direnekin, eta eskola komunitatera hurbiltzea, familientzat informazio eta partaidetzaren bide gisa baliatuz eta irakaskuntza eta ikaskuntzako eginkizunetan haien lankidetzarako erraztasunak emanez.

Esaten badugu irakurtzeko modua erabat aldatu dela, irakurlearen aldetik trebetasun berriak eskatzen dituela eta horren papera ere eraldatu duela, horrek esan nahi du material didaktikoak euskarri digital egokietan prestatu behar direla, zeinetan hipertestuak ikastunen pertzepzio eta sentiberatasun berrietan oinarritutako ikaskuntza izateko bidea emanen baitu. Hizkuntza eta Literaturaren aipatu nabigazio-egunkaria, bere osotasunean ulertu arren, elkarrekin loturiko lerro batzuetan dago egituratua. Nabigatzaileari aurkezpen gisa azaltzen zaizkionak sarrerak nahiz igorpenak dira, nahas-mahas dauden eta gelan, gogoeta gisa, erabiltzen diren materialekin prestatuak, mintzairaren eta giza

<sup>16</sup> <http://www.profeblog.es/>

.....

komunikazioaren inguruan proposatutakoak, kategorietan multzokatuak eta berrienak aurrena eta zaharrenak ondoren jarrita ordenatuak.

Bigarren lerroan dira Batxilergoko eta DBHko irakasgaien programazioak, oraingoz berehalako premietan zentratuak daudenak. Aukera ematen diote ikasleari gidoi interaktiboan bitartez edukiak berrikusteko eta hizkuntza trebetasunak hobetzeko, Sarean bildutako informazioan eta datu sakabanatuetan oinarrituta. Hirugarren lerroak testu literarioetara iristeko estekak edo hiperloturak dakartza, baliabide birtualen nolabaiteko liburutegi bat, ikasleak derrigorrez nahiz bere borondatez irakurri beharrekoa, bai eta argitalpen honen egileari baliabideak ekarri dizkioten web orriak edo blog pertsonalak ere, hala ikerketa didaktikoarekin loturikoak nola hizkuntzaren erabilerakoak. Kasu honetan, estekak irakasleen ikuspuntutik daude eginak. Azkenik, nabigazio-egunarian familiak ikasleen berariazko taldearen dinamikara hurbildu nahi dira, horretarako tutoretzako programazioaren gaineko informazioa emanez, eta, orobat, gaien eta jardueren egutegia, ikasketen orientazioari buruzko xehetasunak eta, gainera, tutorearekin zuzeneko eta berehalako kontaktua lortu nahi da, blog berean eskura izaten ahal den iruzkinaren edo posta elektronikoaren bitartez.

#### 4.6 Lankidetzan idaztea

Idatzizko adierazpidearen didaktikan lan eta gogoeta ildo emankorrenetako batek badu zerikusia idazketaren izaerarekin berarekin. Egile, hizkuntzalari eta semiologo gehientzat generoek eta horien osagai sozialak<sup>17</sup> baldintzatzen dute idazketa. Idatzizko diskurtsoaren generoak dinamikoak dira, sortuz gero bilakaera izaten dute, helburuak garatzen, komunitate diskurtsiboak zedarriztatzen eta gizarte egiturak errepikatzen dituzte. Diziplinen eta ezagueraren arlo desberdinetan ikastunak espezialitate desberdinei –humanistiko, zientifiko eta teknologikoei– dagozkien generoak menderatzen ikasten du oinarritzko edo derrigorrezko hezkuntza mailan, edo lanbide arlokoiei eta espezializatuiei dagozkienak unibertsitate mailan edo ikerketa mailan. Ama hizkuntzak irakastean, eginahalak egin behar dira ikastunek maila landua edo jaso lor dezaten, hau da, Hizkuntzen Europar Portfolioak ezarri duen erabiltzaile aurreratuaren maila.

Irakaskuntzako profesional gisa aurreneko aldiz idazki baten erredakzioaren aurrean aurkitzen garelarik, adibidez zehapen espediente baten aurrean, lehenagotik eginiko idazkiak bilatzen ditugu eta baita eskertzen ere, horietan oinarritzen baikara lana ongi burutzeko. Zuzenbidetako ikasle batek eremu juridikoaren genero desberdinetan trebetasunez moldatzen ikasi behar du, eta bere karrera profesionala, neurri handi batean bederen, horiek menderatzearekin eta gaitasun ahozko eta idatziarekin dago lotua. Oinarri horrek baieztatzen du, aidanez, idazketa elementu soziala dela; lehenik ondare kulturala da, lankidetzan inplikatu du, irakurketak eskatzen ditu, elkarrizketa eta adieraziak eratzea; kontrako aldean, ohiko egile pribatua dugu, autonomoa eta ixila bere

<sup>17</sup>D. Cassany. *Taller de textos (Leer, escribir y comentar en el aula)*. Paidós. Barcelona, 2006

sormen lanetan. Hitz gutxitan esateko, hori idazketaren izaera sozial eta dialogikoaren baieztapena litzateke (Bajtin). Horrek, liburu-etako itxura edo nolabaiteko buru teoriakoa izan arren, ikasgelako errealitatean eragin emankorra izan dezake, izan ere maila idatziaren komunikazio gaitasunak ez dira indibidualtzat jotzen, bakarka egin beharreko lanak bailiran, baizik eta lan komunitario gisa, idazketa lan publikotzat jotzen da, komunitateko ahotsak jasotzen dira, egilea aurkeztu eta “irakurle kideekin” hitz egiten denez, irakurketa ere bere baitan hartzen du.

#### 4.6.1 ■ PLAGIO BAT PRESTATZEA. ADIBIDE BAT

Azalduko den jarduera honek ikasleek plagio bat ohartuki prestatzea du helburu, Bernardo Atxagak<sup>18</sup> adierazitako urratsei eta metodoari jarraikiz. Bi hizkuntza erabiliko dira, euskara eta gaztelania, ikasleak elebidunak direlako eta literaturako testu batzuk jatorriz euskaraz idatzirik daudelako. Talde-lana izanen da, emaitza ere taldean berean eztabaidatuko da eta ideiak elkarrekin trukatzeko behar-beharrezkoa da. Generoa beldurrezko kontakizuna da eta plangintzaren, testualizazioaren eta lankidetzaren dinamikan oinarritzen da.

Zortzi edo bederatzita saio emanen dira plagioa prestatzen. Lehenbiziko saioan kontaktizunaren elementurik behinenak berrikusiko ditugu, informazio iturri nagusi gisa DBHko hirugarren mailako eskuliburu bat erabiliz. Eskema bat eratuko dute elementu hauek kontuan hartuz: narratzailea, gertakizuna, pertsonaiak, egitura, denbora eta gune narratiboak, elkarriketa... gero jardueran erabiliko dituztenak.

Bigarren saioan ikasgela bi zatitan banatuko da. Ikasleen erdiek bakarka irakurriko dute Villiers de l'Isle-Adamen *Itxaropenaren tortura* izeneko ipuina eta beste erdiek *Pitzadura bat elur izoztuan*, Bernardo Atxagarena. Kontakizunaren hiztegi aberatsa ikusiz, batez ere Villiersen ipuinarena, eta horien luzera, hogei orrialde inguru, irakurtzeko garaian lagundu egingen diegu. Hasieran kosta egiten zaie, baina kontagaia eta azaltzen den ankerkeria ulertuz doazen heinean istorioak harrapatuak gelditzen dira. Ondoren, eskatzen zaie narraziozko eskema aplikatu dezatela testuetan eta elementu funtsezkoenak atera ditzatela: narratzaile mota, pertsonaia nagusiak eta haien arteko gatazkak, espazioa, garaia, barreneko denbora, diskurtso-ereduak kontakizunean, eta egiturari erreparatuz garrantzi handiena duten ekintzak.

Hirugarren saioan, bikoteka egiten dute lan bi kontakizunen gainean. Prestaturiko eskemaren laguntzaz, bakoitzak aldameneko lagunari kontatzen dio irakurritako istorioa. Horrela konturatzen dira ezen, hasieran istorio horiek elkarrekin ikustekorik ez dutela badirudi ere, horien egitura berdintsua dela. Beti ere bikoteka, kontakizunak aurrez aurre dituztela, istorioak nola amaitzen diren adierazteko eta bata bestearekin alderatzeko eskaria egiten zaie. Atxagaren istorioan tarte hau irakurri behar dute: *Philippe Augustek goizeko aire garbia hartu zuen... bukaeraraino*, eta Villiersen istorioan *Aire sakratua hartu zuen, haizeak suspertu zuen...* amaiera punturaino. Hogei bat lerro dira. Une horretantxe konturatzen dira bukaerak oso berdintsuak direla, kasik hitzez hitz kalkatuak.

<sup>18</sup>Jarduera hau Helena Sáinz Burlatako Askatasuna BHIko irakasleak diseinatu eta gauzatu du

.....

Une horretantxe da, hain juxtu, beharrezkoa gure parte-hartzea, plagioaren adierazpen bat egiteko eta Atxagak horri buruz bere Obabakoak liburuko *Pitzadura...* izeneko ipuina baino kapitulu bat lehenago zioena ikasleei kontatzeko: horren justifikazioa hizkuntza bat finkatzeko eta plagio on bat egiteko ematen dituen jarraibideetan datza (*Ondo plajiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat*). Egileak, izenburuan berean dioskun bezala, behar bezalako plagio bat egiteko jarraibideak emateaz gain, adibide bat jartzen du. Ikasleen erdiak irakurritako ipuina (*Pitzadura bat...*) Atxagak jarritako adibidea dela azaltzen dugu. Gainera, bitxitasun gisa, Villiersen izen osoa ematen diegu: Juan Maria Matías Felipe Augusto, Villiers de l'Isle-Adameko kondea. Laster konturatzen dira haren izenaren atalen batzuk *Pitzadura...* ipuineko protagonistetan ageri direla: Philippe Auguste eta Mathias.

Hondarreko bost minutuetan, ikasgelan plagioez eztabaidatzen dugu. Orok ezagutzen dute ongi gai hori musikari; oraingo honetan literaturan egiten diren plagioez mintzo gara eta esaten diegu plagioa egitea franko arrunta zela Erdi Aroan, eta horrela hurrengo hiruhilabetean estudiantuko dutenaren aurrerapen bat eskaintzen diegu.

#### 4.6.2 ■ TESTU EKOIZPENA

Ekoizpenaren txanda iritsi zaigu. Taldeak eratzen dira, hiruak, eta euren artean prestatu behar dute plagioa. Aurrena, narraziozko elementuetatik atera duten eskemaren laguntzaz euren plagioaren eskema prestatu behar dute, pertsonaiak diseinatu, garaia, konfrontazioaren zergatia eta ez asko gehiago. Gainerakoa, irakurriak dituzten istorioetatik ateratzen da, izan ere plagioa izanik, kontakizuna gau batean gertatzen da eta egintzen hurrenkera ere bete behar da.

Sekuentziak honako hauek lirateke: pertsonaietako baten kondena edo haren kalterako egoera, heriotzera eramanen duena, aurkaria agertzea, zeinek zerbaitegatik lehenbizikoa hil dadila nahi baitu, eta horrela izanen dela segurtatzea, hots, hil egingen dela. Ondoren itxaropena, zerbait gertatu da, etsaiak zerbait egin du oharkabean eta horrek kondenatuari pentsarazten dio ihes egin dezakeela —gaizki itxitako ate bat, eskalatzeko sokaren bat han utzia...—. Gau izugarri gogorra, sufrimendu izugarriak, kondenatua oso ahul dagoelako eta salbaziora iristeko egundoko eginahalak egin behar dituelako. Arrakasta izan du, eguna argitu du eta kondenatua bere helburura iritsi da, lortu du salbazioa. Itxaropen faltsua, etsaia hantxe baitago, berriro kondenatzeko prest. Kondenatuak ulertu du, azkenean, dena presatua izan dela azken tortura sufriarazteko, denetan ankerrena: itxaropenaren tortura.

Ikasleei, halaber, eskatzen zaie euren istorioen amaieran irakurriak dituzten Villiers eta Atxagaren istorioetako hitz berberak itsats ditzatela, plagioa dela argi ager dadin. Bosgarren eta seigarren saioan gidoia erakutsiko digute, behar diren urratsak egin ditzatela frogatzeko, pertsonaiak eta haien arteko lehia egiantzekoak direla, etab., eta, behin ongi prestatu ondoren, euren plagioa idazten hasiko dira. Bi saio dituzte hura idazteko. Taldean hitz egin, eztabaidatu eta erabakia hartzen dute. Talde bakoitzeko hiru kideek idatzi behar dute istorioa.

Ondorengo saioetan taldeak aldatzen dira berriz, hiru orainak oraingoan ere, baina beste taldekoekin truke eginik; horrela hiru istorio desberdin izanen dituzte. Bost minutu ematen zaizkie nor bere istorioa isilik irakur dezan, besteei irakurri baino lehen. Entzuleak liluratu behar dituztenez, ahots gorako irakurketa ongi prestatu beharra dute. Bakoitzak, orri banatan, aditutako plagio bakoitzari puntuazioa jarriko dio. Taldeak txandakatu joan dira, harik eta denek istorio guztiak entzuten duten arte.

#### 4.6.3 ■ JARDUERAREN BALORAZIOA

Azken saioan bozkatu egiten da eta gehien gustatu zaien plagioa hautatu. Gainera une hori aprobetxatzen da jarduera ebaluatzeko eta ikasleei eskatzen zaie buruturiko jardueran gehien gustatu zaizkien hiru xehetasun idatz ditzatela eta gustatu ez zaizkien beste hiru. Alderdi positiboen artean azpimarratzen dute jarduera franko berezia dela, jostagarria, interesgarria eta praktikoa. Lana taldeka eginik, kideei aditzen eta haien ikuspuntuak kontuan hartzen ikasten da. Haien iritziz, irudimena ere handitzen da, istorioak elkarrekin trukatzeko dituzte, idazmena hobetzen da eta, bestalde, ozenki irakurtzea ere komenigarria da latsa kentzeko. Uste dute horrela klasea ez dela horren astuna eta lan gehiago egiten dela.


Alderdirik makurrenak honako hauek: istorioa asmatzeko nekea, plagioak ulertzeko, lagunen artean ados jartzeko eta, orobat, puntuatzeko zailtasuna, esperientzia faltaz. Astero egin beharra ere kritikatzeko da, ozenki irakurri beharra eta idazteko lana, gogor samarra baita.

Egin duten ebaluazioaren ondorioz iruditzen zaigu plagioaren jarduera gustatu zaiela, ikasi eta ongi pasatu dutela taldeetan. Era diskurtsiboa, narrazioa, kontakizun laburraren generoa izanen da, agian, hobekien menderatzen dutena. Alabaina, istorioak ongi hasten badute ere, erdi aldera tratatzen dira eta amaiera ematea kosta egiten zaie, denek modu koherentean egin badute ere. Gero, lana taldean egiten segitu nahi dute, baina hori ezinezkoa da. Beti dago ikasleren bat harremanak izateko orduan atzera eginen duena eta guri dagokigu ikasle-taldeak egokitzea. (II. eranskina.

Jarduerak gutxiago iraun zezakeen, kontakizun laburragoak eginez eta ez astero –ostirala genuen horretarako–, baina horrela sobera luzatzen da eta jarduera berreskuratzea nekezagoa da. Agian, irakasleek zuzenki har zezaketen esku erredakzioan, istorioak idazteko orduan, eta, jakina, lanaren azken emaitza, ipuinak, hobeak ziratekeen. Esan behar da, azkenik, adibidea erabilgarria dela beste motako tipologia testualetan, adibidez deskripzioan edo azalpean.

.....





AZKEN SOLASA




Masa-komunikabideetan eta IKT eta Interneten bidezko informazioaren globalizazioa deitu den horretan XX. mendearen bukaerako eta XXI.aren hasierako gertakariak mezuak jasotzeko, irakurtzeko eta idazteko modu diferenteak sortarazi dituzte hiritar guztientzat, oro har, eta eskoletako ikasleentzat, bereziki. Giza komunikazioen esparruan izan diren aldaketak funtsezkotzat baloratzerakoan adostasuna baldin badago ere, horrek ez du nabarmenki aldatu ikasteko sistema eskola-eremuan. Baina, badira, bestalde, berrikuntza-ekimen ugari IKTen lorpenak zabaltzeko, zeinek frogatu baitute ikasle-en ikaskuntza hobetzeko eraginkorrak direla.

Hala ere, irakasleentzat teknologia berriek eta horien ahalbideek jo duten erronka liluragarria da prestakuntza eta irakasteko moduak eraldatze arloan, baina ohiko tresnak gutxietsi gabe, aitzitik, lagungarri gisa. Alde horretatik, lan honetan barrena behin eta berriz errepikatu da irakurketa eta idazketa funtsezkoak direla hiritar libreak eta kritikoak prestatzeko orduan. Pantailak ez du liburua ordeztuko, biak bizi eta elika daitezke elkarrekin.

Aztertu diren Interneten genero eta formatu desberdinetan ikusi da, erabilpena egokia eta eraginkorra izanen bada, erabiltzaileen komunikazioko gaitasuna eta ahalmen diskurtsiboak funtsezkoak direla. Web guneak, posta elektronikoa, txata, blogak, guztiak berriki iritsi direnak hiritarren eskura gizarte teknifikatu eta demokratiko honetan, gogoeta eta analisiaren gai izan dira, hondarrean ikasgelako errealitatearekin kontrastatuko diren proposamen batzuk egite aldera. Proposamen didaktiko horiek, irudikatu dugun eskolako ikasle prototipiko horren profilari egokitzen zaizkionak, zeinek dagoenekoz eskaintzen zaizkion euskarri desberdinak konbinatzen ikasi baitu, gai dira motibazio, integrazio eta aprobeitxamendu handiagoa eragiteko curriculum arloetan eta, bereziki, irakas-hizkuntzetan.

Oraintxe da gogoeta hauen egokitasunaz eta proposamen hauen bideragarritasunaz irakasleek euren iritzia emateko ordua, ikastetxeko ingurunera eta testuingurura eramanez, eta irakaskuntza lanean egin dituzten gogoeta eta proposamenekin aberastuz.






ERANSKINAK




## I. eranskina. Grafiko iruzkinduak

---

**1. grafikoa**  
EGUNKARIAK IRAKURTZEKO OHITURAK




**2. grafikoa**  
GEHIEN IRAKURTZEN DIREN PRENTSA ATALAK



Egiaztatu den lehenbiziko gauza da laginketako nerabeek komunikabide tradizionalenak irakurtzen dituztela. Egunkariak, adibidez, gehienbat astean behin irakurtzen dituzte –%47–, egunkaria inoiz ere irakurtzen ez dituztenak %31 inguru dira, eta eguneroko irakurleak, berriz, ikasleen %22. Atalik irakurrienak 2. grafikoan aipatzen dira: aurrena, kirolen atala, alde handiarekin; bigarren tokian aisia ageri da, bere baitan denbora-pasak, zinema eta telebista hartzen dituenak; ondoren, albisteak, bereziki atarikoak eta tokian tokikoak, eta ia ez dira aipatzen ere iritzi eta kritika atalak.

### 3. grafikoa EGUNKARI IRAKURRIENAK




Egunkarien izenei dagokienez, gehienbat tokikoak nahiz eskualdekoak dira, argitalpen estatalean edo nazionalen kasik eraginik gabe, kirol egunkariren bat izan ezik. Jendeak hurrenkera honetan hautatu ditu: “Diario de Navarra” –68 pertsona–, “Diario de Noticias” –62–, “Gara” –17–, “Marca” –11–, eta “Berria” –7–.

Oatuok bat datoz Zizur Nagusiko BHIaren makroinkesta batean ateratakoekin (2005-2006 ikasturtea). Horren arabera, egunkarien eguneroko irakurketa DBHko 1. mailan %19 bazen, DBHko 4.ean %26ra iritsi zen, eta gorantz egin zuen Batxilergoan, non egunkarien irakurleak %42ra igo ziren 1. mailan eta %39ra 2.ean.


Oatu horietatik atera daitekeen ondorioa da Bigarren Hezkuntzako ikasleak ez duela egunkariak kontsumitzeko ohiturarik, irakurketak zerikusi handiagoa duela bere zaletasunekin eta aisialdiekin, eta zein egunkari aukeratu familiak erabakitzen duela batik bat, gazteek ez baitute eurek zuzenean erosten. Dударik gabe, eskolaren baitan dago egunkariaren irakurketa sartzea, hura ulertzea eta aztertzea proposamen didaktikoetan, hedabide horrek garrantzi handia baitu iritzi kritikoa eta hiritar kontzientzia eratzeko.

### 4. grafikoa ALDIZKARIAK IRAKURTZEKO OHITURAK




Interes handiagoa du aldizkarien kontsumoak. Laginaren ia-ia %75ek maiz samar irakurtzen ditu aldizkariak, %30ek astero, %45ek hilabetean behin, bederen; aldiz, %21ek dio behin ere ez duela irakurtzen eta %4k ez du erantzun.

**5. grafikoa**  
GEHIEN IRAKURTZEN DIREN ALDIZKARIEN IZENAK




Aldizkari mota ugari daude, baina gaiari erreparatzen badiogu, musikalak dira nagusi, ondoren kirolekoak eta atzetik, baina hurbil, aisia eta gizarteari dagozkienak. Izenburuei dagokienez, era askotakoak daude, nahiz eta batzuk besteen gainetik egon. Horrela, kirolean espezializatuak –futbola, automobila eta motoziklismoa–, Bravo, Loka Magazine eta Super Pop, hamabosteroko magazinak jende gazte-gazteari zuzenduak, ia beti neskak, eta egunkariekin batera banatzen diren asteroko gehigarriak. Hedabide honetan azpimarratzekoa da familiak eragin gutxi duela, neska-mutilak eurak direlako erosleak. Gainera aldizkari horiek, gazteentzako prentsa horia, bestalde, adierazten digute zein diren nerabeek gogokoen dituzten diskurtso-generoak, marketing irizpide hutsez eginiko argitalpenak baitira. Horien artean honakoak nabarmentzen dira: testak, gutun pertsonala, kontsultategia, horoskopoa, elkarrizketa, lehiaketa, istorio laburrak...

**6. grafikoa**  
IRRATIA ENTZUTEA



Irrati-kontsumitzaileen kopuruak badu garrantzirik: laginaren %13k bakarrik adierazi du behin ere ez duela entzuten. Institutu batetik bestera aldeak badira ere, %40k egunero entzuten du eta gutxi gorabehera %47k noizbehinka. Gehienek, beste edozer gaineratik, musika eta abestiak entzuteko pizten dute irratia. Izan ere, irratorik aipatuena musika modernoan espezializatuak dira, Los 40 Principales, Kiss FM eta Europa FM, “irradi-formula” deituak; horiek kate generalisten gaineratik daude, azken hauek aipatu ere ez baituzte egiten. Nolanahi ere, ez da ahantzi behar tokiko edo eskualdeko irrati batzuek, gazte jendeari zuzenduak, jarraipen nabaria izan dezaketela euren eraginpeko zonaldean; horrelakoa da “Eztanda Irratia”, Sakanakoa.

**7. grafikoa**  
 GEHIEN ENTZUTEN DIREN IRRATIEN IZENAK



Telebista da, bistan denez, hedabiderik erabiliena, erabiltzaileen artean ez dago telebista egunero ikusten ez duenik (!), kontsumoak, alabaina, behin eta berriz aipatuko denez, ez dira neurritz gainerakoak, egonkor daude, eta are gehiago, hein batean bederen murrizteko joera dago. Batez besteko kontsumoa egunean 120 minutukoa da pertsona bakoitzeko. Gazteentzat telebista denbora-pasako eta albisteak jasotzeko tresna nabarmena da.

**Liburuak**

.....

Ikasleen %25ek aitortzen du eskolako lanekin zerikusirik ez duten liburuak irakurtzen dituela egunero –hemen aipatzekoa da neskak mutilak baino lau puntuz goiago daukela–, %50ek noizbehinka irakurtzen ditu eta gainerako %25ek derrigorrean baizik ez ditu irakurtzen, eskolako lanetarako. Kasu guztietan aldeak nesken aldera daude.

Aipatu den Ikerketa eta Dokumentazio Zentroaren azterlanean nerabeen %36k aitortzen dute liburuak maiz irakurtzen dituztela, %38k noizbehinka, eta %26k ez direla irakurleak. Pertsona helduekin alderatuta, esan daiteke nerabeek helduek baino zertxobait gehiago irakurtzen dutela; helduen artean euren burua irakurletzat jotzen ez zutenak %45 ziren.

.....


Nerabean parte handi batek, %47k, aitortzen du gehiago irakurri nahiko lukeela, baina %23k kontrakoa dio, ez duela gogoko. Irakurtzeko arrazoien artean beste ororen gainetik atsegina izatearena dago, %53, ikasteko gogoaren gainetik, %15, ondoren, eskolako lanak, %13, ez aspertzeko, %10, eta halabeharrez, %9.

Nolanahi ere den, irakurketa ez da beste zaletasun batzuekin lehiatzeko gai. Beste jarduera batzuek aurretik ditu, hala nola lagunekin ateratzea, musika entzutea, diskotekara joatea, kirola egitea, zinema, telebista, Internet... Liburu bat irakurtzeari ekiteko arrazoien artean gaia da nagusi –%70– irakasleen, adiskideen edo familiaren gomendioen aurretik, era horretako hautaketak laginaren herena baizik ez baitira. Eta gutxiengoa da, argi eta garbi, liburuaren azalagatik edo modan dagoelako egiten den hautaketa–%14–. Dirudenez, liburu baten azken balorazioan garrantzi handiena du gertakizuna interesgarria izateak, eta ez hainbeste ulergarritasunak, pertsonaiak, hizkera motak eta laburtasunak. Irakurliburuak non eskuratzen diren jakiteko, eskola liburutegiak azken tokian daude, aurretik auzoko edo udaleko liburutegiak, adiskideek edo eskolako kideek utzitakoak eta lehen tokian norberaren liburutegia edo etxekoa.

Azkenik, liburuen irakurketan eragina duten aldagai desberdinak aztertu ziren. Adierazgarritzat jo dira sexua –nesken artean %44 dira irakurle saiatuak eta mutilak berriz %27–, aitaren eta amaren ikasketa maila –zenbat eta maila handiagokoak izan hainbat eta irakurtzeko joera handiagoa–, eta ikaslearen irakurtzeko ohitura eta eskola-errendimendua –biak elkarrekin lotuak–. Aitzitik, ez bizilekuak ez eta maila sozioekonomikoak ere badirudi liburu irakurketan eragin nabarmenik ez dutela.

## Internet


**8. grafikoa**  
HEDABIDEEN ARTEKO KONPARAZIOA



Interneten, gehienetan etxekoa, inkestatu gehienak –%86,6–, egunero edo astean behin sartzen dira, %52,8 egunero-egunero. Alabaina, inoiz ere sartzen ez direnak ere badira,

%13,3. Internet bigarren tokian dago, jada, eguneroko kontsumoen artean, telebistaren gibeletik, institutu batekoak 50 minutuz ari badira, bestekoak 58; beraz, egunero irratia entzuten ematen dutena (45 minutu) baino zertxobait gehiago, goiko grafikoan ikus daitekeenez.

**9. grafikoa**  
**WEB ORRIAK BISITATZEKO ARRAZOIAK**




Sarean nabigatzeko arrazoi nagusienak jostaketa eta aisia dira, eta horiek ongi egokitzen dira ikasleek azpimarratzen dituzten helbide elektronikoekin. Hemen sartuko litzateke, adibidez, on line jokoetan aritzea edo musika eta filmak jaitea. Dena den, ikasketekin edo etxeko lanekin lotzen diren arrazoiak emeki-emeki gorantz doaz, eragin handiagoa dute DBHko 4. mailan 3.ean baino. Oro har, neskek zein mutilek erabiltzaile onak direla uste dute; hori espero izatekoa da Internetek eskatzen dizkien bilaketak eta trebetasunak zein diren jakinik, gehienetan arrakastatsuak izaten direnak, eta arlo horretan prestakuntza falta inkestatuen herenak soilik aitortzen du.

Kontraste gisa, azterlan hau Komunikabideak Ikertzeko Elkarteak (KIE) aldiro egiten duenarekin konparatu da. Burutu ditugun inkestetan ateratako emaitzak bateragarriak dira, oro har, KIEk<sup>24</sup> eginikoekin. KIEk ikertutakoen artean gazteenak 14 urtetik 19ra bitartekoak dira –ez ditu adin txikiagokoak aztertu–, beraz, DBHren amaieraren ingurukoak. Populazioaren segmentu honek egiten duen egunkarien eta gehigarrien eguneko kontsumoa apala da, %5,8, populazio osoaren laginean %7,4koa den bitartean; aldizkariena erdi mailatik gorakoa, %10,3; telebistarena neurrikoa, %7,5; zinemarena apala, oso, %3,1, eta Internetena berriz, altua, %15. Entzulegoaren gaineko azterlana derrigorrezkoaren ondorengo etapako gazteekin, batxilergo, lanbide heziketa eta unibertsitatean ari direnekin egin zela kontuan hartuz, ikusten ahal da gure ikasleek prentsa, irratia eta zinema gutxi kontsumitzen dutela, telebistaren kontsumoa erdi mailakoa dela, eta Internetena gehitzeko joera agerian dagoela.

.....

### 10. grafikoa

#### INTERNETEKO GENERO DESBERDINEN ARTEKO KONPARAZIOA ERABILERAREN ALDETIK



Interneteko genero desberdinen erabilerari dagokionez, ororen gainera dago txata edo messengerra; institutuetak batean, DBHko 4. mailako laurogei ikasleren laginketa batean %87,6k maiz erabiltzen du, e-maila erabiltzen duen %51,8ren aurrean, eta soilik %29,6k ezagutzen du edo sartu da weblogetan. Neurri handi batean Interneteko loturak badu zerikusia genero sinkroniko horrekin, txat eta messengerrarekin, alegia, zeinak ama hizkuntza aski poliki menderatzea eskatzen baitu, bai eta informatikako trebetasun batzuk ere. Txateatzeko arrazoen artean besteren gainera ageri dira lagunekin solastea –kasu horretan messengerra litzateke–, jende berriaren edo ezezagunaren ezagutza, jostaketa hutsa, eta azkenengo tokian, beste era bateko eta zentsurarik gabeko komunikazioa.

Pentsa zitekeenez, posta elektronikoa doi-doi erabili ohi da bizitza akademikoan: %25ek baizik ez du erabili era horretako langintzan. Dena den, pertsona horiek oroimenean dute beti zergatik eta zein irakasgaitarako erabili zuten. Guztiarekin ere, eguneroko bizitzan posta elektronikoak garrantzi handiagoa du: %59k dioenez bere adiskideekin erabiltzen du eta, etorkizunean eskolan eta lanbidean izan dezakeen baliagarritasunari buruz iritziak zatiturik daude. Inkestatuen erdiarentzat informazioa igortzeko eta eskuratzeko, lan eta prestakuntza eskaintzak erdiesteko baliabidea da, baina beste erdia gai horri buruz ezkorra da. Azkenik, blogen, weblogen generoa ezezagunena da, baina gerta daiteke anitzek erabili izana eskuartean zerabiltzenaren izena jakin gabe.



## II. eranskina. Ikasleek eginiko kontakizuna

.....

URRUNGO ERRESUMA BATEAN, MARIANO, GIZON APALA

Urrun baino urrunagoko erresuma batean, Godofredo II.a kondeak eta haren emazte Faustina maiteak, goitizenez “Ona”, gobernatzen zuten...

Gau batez, Faustina bere gelan orrazten ari zelarik zerbitzari bat joan zitzaion ordua iritsi zela esatera; Godofredo hilurren zegoen, hiltorian.

Faustina, poz-pez, botilatxo bat hartu zuen bere apain-mahaitik. Joan zen kondearen logelara eta han ikusi zuen ohean etzanda, ongi estalia baina itxuraz gaizki.

Faustina, emeki-emeki ohera hurbildu zen. Laztanten hasi zitzaion, musu luze bat eman eta ondoren sendatzeko antidoto bat zeukala xuxurlatu zion. Samurki ferekatzen jarraitu zuen eta halako batean eman zaplasteko bat eman eta hau esan zion:

- Zer uste zenuen, gertatutakoaz ahantziko nintzela? Hainbeste denbora zure tratu txarrak eta torturak jasan behar, hainbeste denbora isilik eduki behar zuri kalterik ez egiteko... Ez dut behin ere ahantziko Mariano Apala! Hura izan baitzen maite izan nuen bakarra... Eta zuk, zikoitza halakoa!, nitaz jabetu nahi baina ezin, eta horregatik hil zenuen Mariano, nire senarra. Herrixka osoa mintzatu zen nitaz. Nola ezkon nintekeen kondearekin Mariano hil eta hain egun gutxira? Ez nuen inoiz ere ahantzi zu izan zinela eta beldurraren beldurrez ez nion inori deus esan. Antidotoa daukat hemen.
- Emaidazu, arren! Alda naiteke.
- Mesanotxean utziko dizut antidotoa. Salbazioa eskumenean duzu: hartzera iristen bazara salbatua zaude.

Faustinak utzi mesanotxean antidotoa eta alde egin zuen. Godofredo behin eta berriz ahalegindu zen. Luzaz saiatu zen eta azkenik lortu ere lortu zuen. Geldi-geldi irentsi zuen; naturaz gaindiko berotasuna sumatu zuen, begiak zuloetatik kanpo atereak, poza-ren pozaz negarrez hasi zen errazago mugitzen hasi zenean.

Ohetik atera eta balkoian belaunikatu zen eta besoak zabalik zerura begiratu eta Jainkoari eskerrak eman zizkion. Baina aurpegian sumatzen zuen argi hura ilunduz joan zen, harik eta norbaitek besarkatu zuen arte. Kondeari poza desagertu zitzaion eta burua biratu zuen besarkatzen zuena nor zen ikustearren: Faustina zen.

- Zer uste zenuen, bada, aireak arpegia nola ferekatzen dizun berriro sumatuko zenuela? Egin agur gure herrixkari, karrika hauetan ez baitzara gehiago ibiliko. Ikusten zure erresuma? Ez zara berriz pentze hauetan zaldi gainean ibiliko ez eta gobernatuko ere –esan zuen Faustinak. Hori esan bezain laster, Faustina Onak hesola puntadun bat hartu eta bihotzean sartu zion Godofredori eta han berean hil zen. Faustina Onak erresuma jarauntsi eta “Mariano Apala”, maite izan zuen eta hil artean maite izan zuen gizonaren izena jarri zion erresumari.

.....

## BIBLIOGRAFIA IRUZKINDUA

- AGUIRRE ROMERO, Joaquín M.<sup>a</sup>, “Literatura en Internet. ¿Qué encontramos en la www?” Revista *Espéculo* 6. zk.  
*Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak aldizkari digital honentzat eginitako artikulua, non egileak literaturari, egileei, literaturako aldizkariei, kritikari eta abarri buruzko atariak eta web orriak berrikusten baititu.*
  - ÁLVAREZ, Luis, *Hipertexto: una estrategia para comprender*, Madril, CEPE, 2000.  
*Kontzeptu honen jatorritik eta argiztetik abiatuz, ikaskuntza prozesuetarako dituen estrategiak eta dakartzan onurak adierazten ditu egileak.*
  - BURBULES, N. y CALUSTER, T., *Educación: riesgos y promesas de las nuevas tecnologías*, Bartzelona, Granica, 2001.  
*Informazioaren teknologien baliagarritasuna saihestu eta eztabaidaren gakoak egileek honen inguruan jartzen dute, hots, horiek nola, nork eta zertarako erabiltzen dituzten. Era berean, gaur egun Interneten sartzeko erraztasunen, irakurketa kritikaren, konfidentzialtasunaren, komertzializazioaren eta abarren inguruko eztabaidak aztertzen dituzte.*
  - CALSAMIGLIA, H. y TUSÓN VALLÉS, A., *Las cosas del decir (Manual de análisis del discurso)*, Bartzelona, . Ariel Lingüística, 2004.  
*Hizkuntza zientzien ekarpen desberdinak biltzen eta aztertzen dituen saiakera, bai eta Testuaren Hizkuntzalaritzak edo Pragmatikak dakartzan nozioak ere.*
  - CASSANY, D., *Taller de textos (Leer, escribir y comentar en el aula)*, Bartzelona, Paidós, 2006.  
*Irakurketa eta idazketa profesionalen artean sustatzeko proposamen praktikoa, lanbide eta diziplina bakoitzak dituen diskurtso-generoen bilduman oinarritua.*
  - CASSANY, Daniel, *Tras las líneas (Sobre la lectura contemporánea)*, Bartzelona, Anagrama, 2006.  
*Irakurketa garaikidearen gakoan eta gure mendean gertatu diren aldaketen analisia, bai eta Internetetik heldutako testuen formatu berrien, azpian beti dagoen ideologiaren, eta testuen analisia ere, euren eremu desberdinetan, bereziki hizkera teknikoan.*
  - CASSANY, Daniel, *Afilando el lapicero*, Bartzelona, Anagrama, 2007.  
*Profesionalei zuzenduriko erredakzio gida, euren idazkiei konfiantzaz eta arrakastarekin ekiteko, ikasgeletan idazketa lanerako erabil daitekeena.*
  - CRUZ PIÑOL, Mar, “La Internet y la enseñanza del español como lengua extranjera”, Revista *Espéculo*, 2006.  
*Interneteko diskurtso-generoen eta horien aplikazioen analisia espainola atzerriko hizkuntza gisa irakastea.*
-


- LOMAS, C., *Cómo enseñar a hacer cosas con las palabras*, 2ª edición corregida y actualizada, Bartzelona, Paidós, 1999.  
*Bi liburukiz osaturiko eskuliburua, hizkuntza eta literaturaren arloko hezkuntzaren azterlan teorikoa, alde batetik eta irakasgaia ikasgeletan irakasteko proposamen praktikoak, bestetik, lotzen dituena.*
- MANGUEL, Alberto, *Una historia de la lectura*, Bartzelona, Lumen, 2005.  
*Irakurketaren historia pertsonala, era atseginean eta sakonki azaltzen dituena mendeetan zehar izan diren irakurtzeko moduak, irakurleak, liburutegiak, liburuak eta horien eginkizuna.*
- Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundea, *Pisa. La medida de los conocimientos y destrezas de los alumnos*, Madril, MEC, 2000.  
*PISA nazioarteko proiektuak ikasleen ahalmenak eta hezkuntza sistemak ebaluatzeko dituen helburuen eta emaitzen aurrerapena.*
- PISCITELLI, A., *Internet: la imprenta del siglo XX*, Bartzelona, Gedisa, 2006.  
*Egileak, testuaren eta irudiaren arteko dialektika analizatzeaz gainera, arlo digitala arlo analogikoarekin artikulatzeko arazoak eta irakaskuntzan izan ditzakeen ondorioak ikertzen ditu, Internetek eztabaida epistemologikorako aukera berriak dakartzan aldetik.*
- BATZUEN ARTEAN, Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación, Madril, MECD-Anaya, 2002.  
*Europar curriculumaren orientabidea, helburutzat Europar Batasuneko Estatuetan hizkuntzen irakaskuntza antolatzea duena.*
- WODAK, Ruth eta MEYER, Michael, *Métodos de análisis crítico del discurso*, Bartzelona, Gedisa, 2003.  
*Diskurtsoaren Análisi Kritikoa izeneko joeraren ikuspuntu desberdinen laburpena ematen duen saiakera, eta joera horrek nola diharduen modu eklektikoan, nola berekin daraman hizkuntza-gaitasuna, gizarte prozesuenganako interesa eta nola kaltetuen alde jartzen den ahalsuek erabiltzen duten tresneria begien bistan jarritz.*
- WRAY, D. eta LEWIS, M., *Aprender a leer y escribir textos de información*, Madril, Morata S. L., 2000.  
*Londresko Lehen Hezkuntzako eskoletan gauzatu proiektu batetik abiatuz ikertzen da ikasleek informazio testuak egituratzeko duten zailtasuna, narraziozko tipologiekin gertatzen ez zaiena.*
- YUS, Francisco, *Ciberpragmática (El uso del lenguaje en Internet)*, Bartzelona, Ariel, 2001.  
*Interneteko genero desberdinen, elementuen, arauen eta protokoloen garrantziari buruzko analisis, Pragmatikaren eta teoriaren aldetik.*

.....









## sorta **Urdina**

### **Blitz** Hezkuntza Departamentuan

1. Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa Hobetzeko gakoak
2. Eskolako liburutegia nola antolatu Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. Saillkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa
5. Eskolako liburutegiko funtsak eta ikastetxeko irakurketa planak

## sorta **Berdea**

### **Blitz** Eskolan

1. MARIANO CORONAS Eskolako liburutegia Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VICTOR MORENO Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa Ballabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta ballatzeko gida didaktikoa
4. M<sup>a</sup> JESÚS ILLESCAS Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu Erabiltzaileak iprestatzen
5. C.P. «ÁLVARA ALVAREZ» de Falces **La formación de usuarios y el uso de la información** Una experiencia didáctica en la biblioteca del Colegio Público de Falces (Navarra)

## sorta **Horia**

### **Blitz** Irakurtzearen alde

1. Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. JESÚS AMADO MOYA Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan
3. ÁNGEL SANZ MORENO Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. VICTOR MORENO Zertarako irakurri? Ulertzeko
5. ÁNGEL SANZ MORENO Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa eta DBHko 1. Zikloa
6. Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean Bi adibide praktikoa
7. NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL FERMIN M.<sup>a</sup> GONZÁLEZ GARCÍA **El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos**
8. VICTOR MORENO **Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz**
9. LUIS IZA DORRONSORO **Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan**
10. Modelo de fondo bibliográfico para una biblioteca escolar de E. Secundaria
11. MIGUEL ÁNGEL GARCÍA ANDRÉS **Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian** Irakurketaren eta idazketaren analisia eta proposamenak Bigarren Hezkuntzan

## sorta **Gorria**

### **Blitz** Idaztearen alde

1. PEDRO JIMENO **Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan**

## sorta **Laranja**

### **Blitz** ahozko adierazmenaren alde

1. ANA MARTÍNEZ MONGAY **Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan**

# **BLITZ**

Liburutegiko sagua

**ESKOLAKO LIBURUTEGIKO BILDUMA**